




IRUTXULO KO HITZA



2005 ————— 2025  
IRUTXULO KO HITZA

# Produktu berriak gure dendan!



Paula Estevezek egindako diseinuarekin

# Mundu osoa da tokikoa

## IRUTXULOKO HITZA

**M**undu osoa da tokikoa, munduko edozein tokitan bizi den edozein herritarrek bere gorputzean bizi baititu mundu mailako arazoak, kezkak, porrotak, arrakastak, ametsak eta gertakariak. Horregatik, mundua behetik gora kontatu nahi bada, ikuspegi herrikoi batetik, tokikotik kontatu behar da. Tokikoak komunitatea eraikitzen duelako.

Hori zen *Irutxulo* astekariaren xedea eta hori da IRUTXULOKO HITZAREN xedea, duela hogeitau urte jaio zenetik orain arte. Donostia den horretan kontatzea. Auzoen Donostia kontatzea, gu ez goazelako auzoetara, auzoetatik gatozelako baizik. Garaiaren kronika egitea, herritarrek egunerokoan bizi dutenaren kronika, donostiarrak erdigunean jarrita: donostiar guztiak. Horretarako guztirako, ardatz nagusia euskara da, euskalginzatatik jaio baikinena eta hori baita gure oinarria.

Mundua tokikotik eta euskaraz kontatu ez ezik, feminismitik, antirrazismitik, elkartasunetik, ekologismitik eta klase ikuspegitik kontatzen dugu, modu independentean, pluraltasunez eta zintzoki. Gure historia berrirakurritik eta hiriari buruzko bestelako kontakizunak azaleratuz, ahotsik ez dutenen bozgorailu izanez,

gertatzen denaren garrantzia azalduz, fokua istorio txikietan jarriz eta euren handitasuna erakutsiz, garaietan txiki zein handiak kontatuz eta testuinguruan jarriz, Donostiako auzo eta herrietara joz, jaiak kontatuz, kultura sustatuz eta donostiarrak donostiarrengandik gertu sentiaraziz. Gertatzen den horrekin zein gure lanarekin kritikoak izanez. Kontatzen ez dena ez delako existitzen. Hori guztia, eragile eta norbanako ugarirekin elkarlanean, bakarrik ezin delako, eta gero eta komunitate zabalago eta indartsuagoa izatea delako bidea.

Txikitasunetik, hirian eragin nahi dugu, donostiarra izateaz harro egon daitekeela erakusteko, donostiartasun berriak sustatzeko, Donostia guztiak kontatzeko, Donostia azaltzeko, Donostiari buruz hausnartzeko, kontraesanak

mahaigaineratzeko eta mundua Donostiatik kontatzeko eta gorpuzteko.

Ez dugu ulertzen hiria eta mundua kontatzeko eta garaiaren kronika egiteko beste modurik, herritik ez bada. Komunitatetik. Euskaratik. Donostiako kale, auzune, auzo eta herri bakoitzetik.

Tokikotik kontatzen da mundu osoa, mundu osoa da tokikoa.



«Txikitasunetik, hirian eragin nahi dugu, donostiarra izateaz harro egon daitekeela erakusteko»

**H** IRUTXULOKO  
**HITZA**

📍 Ametzagaña, 19, behea, 20012 Donostia

☎ 943-46 72 36

✉ donostia@hitza.eus

**Irutxulo.hitza.eus**

**Argitaratzailea:** Donostiako Hedabideak S.L.

**Lege Gordailua:** SS-226-05

**Azaleko diseinua:** Paula Estevez

**Zuzendaria:** Beñat Parra Rodriguez

**Erredakzioa:** Inaxio Esnaola Aranzadi, Maitane Aldanondo Gabilondo, Sara Iburguren Etxeberria, Xalba Ramirez Cruz

**Kudeatzailea:** Naike Usabiaga Urruzola

**Publizitatea:** Aizpea Aizpuruua Arroio  
aizpuruua@hitza.eus · 688-60 71 08

**Diseinatzailea:** Oier Arribas Ciria

**Sustapena:** Andrea Bosch Alfaro



Donostiako Hedabideak SL:



Proiektua diruz laguntzen duten erakundeak:



# Hogei urte, hamaika aldaketa, hamaika erronka

Hogei urte bete ditu IRUTXULOKO HITZAK. Hogei urte Donostiako tokiko informazioa euskaraz lantzen, gertuko kazetaritza egiten, munduari tokikotik begiratzen eta garaia kronika osatzen. Bi hamarkadotan, mundua aldatu da, eta baita Donostia eta kazetaritza bera ere. Bere komunitatearen babesarekin, aldaketa guztietara egokitzen joan da hedabidea, garaian garaiko erronkei aurre eginez.

**H**ogei urte. Hogei urte IRUTXULOKO HITZA Donostiako egunkariaren lehenengo zenbakia, 2005eko otsailaren 17koa, argitaratu zenetik –zero zenbakia urte hartako San Sebastian bezperan argitaratu zen–. Atzerago ere jo behar da, ordea, Donostiako euskal hedabidearen historia osoa errebasatzeko, izan ere, 1994tik, *Irutxulo* astekaria zegoen hirian, astez aste tokiko informazioa euskaraz lantzen. Bagera Euskaltzaleen Elkartek sortu zuen astekari hura, eta, 2005ean, IRUTXULOKO HITZAK hartu zion lekukoa, egunkari bihurtuta, Bagera Elkartearen, Berria Taldearen eta hiriko 40 eragileren baino gehiagoren ekimenez.

Astekari izatetik egunkari izatera pasatu zen Donostiako euskarazko hedabidea 2005ean, eta, garaian garaiko egoeretara egokituz, astekari izatera itzuli zen 2013ko urtarrilean, webguneko edizio jarraitua indartuz. Hala dihardu hedabideak gaur egun, paperezko astekariari eutsiz eta webgunea eta sare sozialak egunez egun gehiago indartuz, bertan eguneroko informazioa jarraituz eta zabalduz.

Proiektuak eta hiriak dituen erronkak, ordea, asko aldatu dira bi hamarkadotan, baita lan egiteko moduak ere. Lehenengo Puioko erredakziotik eta ondoren Egiakotik pasatu diren profesional guzti-guztiek, komunitatearen babes ezinbestekoarekin egin dute IRUTXULOKO HITZA urteotan guztietan, eta urte luzez hedabide honen orrialdeak bete dituzten lau kaze-

✎ Beñat Parra Rodriguez



IRUTXULOKO HITZA jaió zen uneko lantaldea, erredakzioan, Martxelo Otamendi orduko *Berria*-ko zuzendariarekin Eskuinetik hasita lehenengoak, zutik, erreportaje honetan parte hartu duten Ander Usabiaga eta Aitziber Iartza. Ezkerretik hasita hirugarrena, zutik, Raul Perez. **IBAN ARREGI**

tarirekin errepasatu ditugu garaian garaiko erronkak, lan egiteko moduak eta bestelakoak: Raul Perezekin (Paris, 1976), Aitziber Iartzarekin (Herrera, 1971), Ander Usabiagarekin (Egia, 1972) eta Estitxu Zabalarekin (Loiola, 1985).

### Egunkarira saltoa

IRUTXULOKO HITZA egunkaria jaió aurretik, *Irutxulo* astekarian lan egiten zuten Perezek, Usabiagak eta Iartzak eta, hain zuzen ere, Iartza eta Usabiaga izan ziren astekariaren azken zuzendariak eta egunkariaren lehenengoak.

«Astekaritik egunkarira pasatzean, lan erritmoan aldaketa nabarmena eduki genuen, astekaria ginenean, nolabait, egunerokoa lasaiagoa zela-

ko. Asteazkenetan bidaltzen genuen astekaria inprentara eta, beraz, bereziki asteartea eta asteazkena ziren egun lanpetuenak. Ordu asko egiten genituen, baina oso giro polita gogoratzen dut *Irutxulo*-n, denok hartzen genuen parte edukien sorreran eta modu horizontalean egiten genuen lan. Aberasgarria zen, eta ikasteko oso bide ona zen», nabarmendu du Usabiagak. Lan erritmoan ez ezik, barne antolaketan ere egokitzapenak egin behar izan zituztela gogoratu du Perezek: «Puioko egoitza itxuraldatu behar izan genuen: lantalde handiagoa ginenez, handitu behar izan genuen espazioa. Txandak antolatu ziren... Egunkari baterako plangintza egin behar izan zen».

Egunkariaren jaiotza lehen lerroan

bizi zuten hirurek nabarmendu dute «anbizio eta ilusio handiko» proiektua zela, eta Iartzak egindako «apustu handian» jarri du fokua: «Beste eskualde batzuetan sortuak ziren eta sortzen ari ziren *Hitza*-k, baina guk ikusten genuen Donostiaren moduko hiri batean, non gaztelerazko hedabide batek orduan ere hegemonia handia zuen, gure ekarpena egin behar genuela eta egunero kalean egon behar genuela. Gainera, euskal prentsak beti hutsune bat izan du paperean astelehenetan, baina guk astelehenetan ere egunkaria ateratzeko apustua egin genuen, besteak beste, Realaren jarraipena eginez eta oihartzun gutxiago duten kirole-tan fokua jarritz». Ildo beretik jo du Usabiagak: «Apustua egin genuen



IRUTXULOKO HITZAREN jendaurreko aurkezpena. Mahaian eserita, Aitziber Iartza zuzendaria, Dani Goñi Bagerako lehendakaria, Joanmari Larrarte EKTko idazkaria eta Isidro Yoldi proiektua babestu zuten eragileen ordezkaria (Berriak elkarte). **IRUTXULOKO HITZA**

hiriko beste egunkari handi batzuekin aurrez aurre lehiatzeko, eta jakin badakit batzuetan haserre batzuk egon zirela, guk gai batzuetan aurrea hartu genuelako».

### Lan egiteko modua eta ildo

Lehenengo urte haietan, noski, ez zegoen webgunerik, ez sare sozialik, eta lan egiteko moduak ere oso bestelakoak ziren. *Irutxulo* astekariaren garaian, «argazkiak positibatu eta ondoren eskaneatu» egin behar izaten zituztela gogoratu du Usabiegak, baina beste bitxikeria batzuk ere ekarri ditu hizpidera: «Interneta erabiltzen hasi ginenean, lankide batek zuen soilik sarbidea, ez dakit oso ondo zergatik. Bestalde, auzoetako korrespontsal batzuek euren kronika disketean ekartzen zuten; beste batzuek idazmakina idatzita, eta, beraz, transkribatu behar izaten zen; eta, beste batzuek, zuzenean, eskuz idatzita ekartzen zuten eta hori ere transkribatu behar zen, noski». Garairearen isla den beste bitxikeria bat

ere kontatu du Perezek, Josetxo Mayor Uliako bideak garbitzen zituen herritarra elkarriketatu zueneko: «Esan nion, 'deituko zaitut aurreko egunean geralekua zehazteko?', eta esan zidan, 'ez deitu, zeren ez daukat telefono mugikorrik. Igo Uliara eta aurkituko nauzu'. Eta hala egin nuen, handik bueltara hasi nintzen, elkar gurutzatu genuen arte».

Zabala 2008an hasi zen IRUTXULOKO HITZAN lan egiten, beste hirurak baino dezente geroago, baina berak ere bizi zituen zailtasun teknikoak: «Puioko erredakzioan oso estaldura txarra zegoen, eta, beraz, kaletik egin behar izaten genituen deiak. Gainera, sakelakotik ezin genuenez grabatu, aldi berean koadernoan apunteak hartzen aritzen ginen. Bestalde, kamerak oso eskasak ziren, mugikorretakoak zer esanik ez, eta behin argazkiak eginda, artxibatzekeo prozesua oso motela zela gogoratzen dut, banan-banan artxibatu behar baitziren».

Era berean, IRUTXULOKO HITZAREN

lehenengo urteetan, webgunea egon bazegoela kontatu du Perezek, baina Internetek gizartean egun duen presentzia inondik inora ez zuenez orduan, paperari ematen ziotela lehentasuna: «Eguneko albiste batzuen aurrerapen bat egiten genuen, lau zertzeladarekin, eta papererako gehiago lantzen genuen, esklusibak eta eduki landuagoak paperean eman nahi genituelako. Auzo elkar-teak eta, oro har, herri mugimendua nahiko indartsu zegoen garai hartan, eta saiatzen ginen beraiekin harremanetan egoten, une oro. Segur aski, beraientzat ere errazagoa zen gurekin harremanetan jartzea hedabide handi batekin baino. Oso gertuko jendea zen, eta estimu handian ditut, horiek gabe ezin genituelako informazio asko lortu».

Edukiei dagokienez, egunkari bihurtzeak aldaketa ekarri zuela gogoratu du Iartzak, baina nabarmendu du *Irutxulo*-ren izpiritua mantendu zuela egunkariak: «Astekariak aukera ematen zigun gaiak lasaiago

lantzeko, erreportajeak eta halakoak gehiago landuz, egunerokotik gehiago ateraz. Egunkari izateak egunerokoari gehiago lotu gintuen, noski, baina eutsi genion gaiak landuago emateari, albiste hutsetik harago. Beti eutsi genion irizpide horri, garrantzitsua zelako guretzat egunerokoa lantzea, baina baita gogoetarako atea irekitzen zuten edukiak lantzea ere».

### Astekarira itzulera

Egunkari gisa argitaratu zuten IRUTXULOKO HITZA 2012ra arte, eta, 2013ko urtarrilean, astekari bihurtu zen paperezko edizioan, webgunea indartuz. Usabiagak ordurako ez zuten IRUTXULOKO HITZAN lan egiten, baina begi onez ikusten du duela hamar urte pasatxo egindako aldaketa hori: «Paperean astean behin egotera itzuli zen proiektua, baina Interneten espazioak irabazi zituen. Erabaki logikoa izan zen. Sorrerara itzuli zen, baina beste espazio batzuk irabazita, bide bat eginda eta erronka handi horri erantzunez. Garaiak eskatzen zuenera egokitu zen, berriro ere, proiektua».

Zabala 2019ra arte aritu zen IRUTXULOKO HITZAN eta, beraz, bertatik bertara bizi zuen egokitzapen hori, baita begi onez ikusi ere: «Egiari zor, ez ginen iristen eguneroko informazioa behar bezain beste lantzerako egunkarian. Eta, itxura aldetik ere, beti iruditu zait askoz politagoa astekari formatuan, bai *Irutxulo* zenean



Raul Perez eta Ion Lopez kazetariak, 2007an, erredakzioan. AMAIA PORTUGAL

eta bai egun». Horrek hala ere, lan egiteko modua eta antolaketa ere aldatzea ekarri zuela gogoratu du kazetariak: «Lan egiteko modua ere aldatu zen, besteak beste, asteburuen antolaketari begira, eta abar. Eta gogoratzen dut zer sentipen arraroa genuen ostiraletan, astekari izaten hasi ginenean. Zeren, egunkari ginenean, ostiraletan ere topera aritzen ginen, baina astekari bihurtzetik aurrera, lasaigoak izaten hasi ziren, hurrengo asteko astekarira begira jartzen hasi ginelako».

Era berean, webgunearen indartzen hasi zireneko garaia ere oso gogoan du Zabalak: «Eromena zen. Adibidez, oraindik egunkari ginenean, Zinemaldiko prentsaurreko batera joaten zinen, eta pentsatu behar zenuen papererako pieza landu bat, baina aldi berean, bideo txiki bat

grabatu behar zenuen webgunean albiste labur batekin argitaratzeko eta, gaia donostiarzako, zuzendari donostiar bat elkarriketatu prentsaurrekoan bertan. Lehentasuna paperak zuen, beraz, behin paperekoa bukatuta jartzen zinen webguneak egiten; arratsaldeko zazpitan edo nik zer dakit zer ordutan». Eta, gauza bera, sare sozialen eztandaekin: «Hasi ginen garrantzi handia ematen sareetan etengabe egoteari, egun osoan zehar, eta albisteak zabaltzeko ordutegiak zehazten hasi ginen. Ikerketak ere bazeuden, eta zioten jendea, batez ere, ordenagailutik sartzen zela sare sozialetan, bereziki Facebooken, goizean goiz lanera sartzean eta arratsaldeko azken orduan, lanetik ateratzean. Orduan, ordu horiei garrantzi berezia eman behar genien».

**GROSEKO  
INDARRA  
SURFESKOLA  
TALDEA**

 [grosekoindarra.com](http://grosekoindarra.com)  **695-75 44 71**

 **JOBILAN**  
Errehabilitazioak

**620-70 69 36**

[www.jobilan.eus](http://www.jobilan.eus)

**Teilatuak.**  
**Fatxadan isolamendu termikoa...**  
**Pintura barnean eta kanpoaldean.**  
**Lan koordinaketak.**

Xirrita Bertsolaria, 21 · Altza · Donostia · [info@jobilan.com](mailto:info@jobilan.com)



Estitxu Zabala, 2014ko Kontxako Banderan, Donostiarrako patroiz Ander Iriarte elkarrizketatzen. DONOSTIARRA

### Auzoak ardatz

Astekari gisa lehenengo, egunkari gisa ondoren eta astekari eta Interneteko edizio jarraituarekin orain, kirolari, kulturari, udal informazioari eta bestelakoei garrantzia eman die hedabide honek, baina, guztiaren gaineratik, eta garaian garaiko erronkak eta lan egiteko moduak zeharo desberdinak diren arren, Donostiako auzo eta herrietan nabarmen jarri du fokua beti IRUTXULOKO HITZAK, eta, oro har, gertuko kazetaritzan: «*Iru-txulo*-k eta IRUTXULOKO HITZAK ahalgina egin dute beti ezkutuan egon den beste Donostia hori azaleratzeko, bai eguneroko informazioarekin, erreportajeekin eta bestelako eduki landuagoekin, baita kolaborazioekin ere. Boterea zalantzan jartzen duten kolektibo guztiak euren tartea izan dute beti, eta hedabidea beti ahalgindu da hiriaren argazki ahalik eta zabalena egiten», nabarmendu

du Usabiagak. «Beti kontaktzen dut bitxikeria bat, *Iru-txulo*-ren garaitik zetorrena, eta da hauteskunde kanpainen alderdi guztiak jartzen zutela publikitate gurean. Anekdotikoa da, baina islatzen du hedabidearen pluraltasuna», gaineratu du Iartzak.

Zabalak ere nabarmendu du Donostiako auzo eta herriei beti emandako garrantzia: «Urteekin, lortu genuen auzoetan ezagutzea IRUTXULOKO HITZA, hasieran, deitzen geniolako jendeari eta askok ez zekitelako hedabide hau zer zen ere. Urteekin, eta tematzearen poderioz, lortu genuen auzoetako jendeari deitzea eta nahiko ezaguna izatea proiektua. Are gehiago, lortu genuen auzoetako eragileak izatea gurekin harremanetan jartzen zirenak». «Erakundeetatik kanpo dagoen eta sistemarekin kritikoa den jendeari ahotsa ematea oso garrantzitsua da,

eta paper hori betetzen du IRUTXULOKO HITZAK. Hiriari ekarpena egiten jarraitzen du», gehitu du, ildo beretik, Usabiagak.

### Ekarpenak eta aurrera begirakoak

Hirian eragitea da IRUTXULOKO HITZAREN xede nagusienetako bat, eta, hain zuzen ere, proiektuak Donostian egindako bi ekarpen zehatz nabarmendu ditu Usabiagak: «Batetik, euskararen normalizazioaren ikuspegitik, donostiar askok ohitura hartu dute euskaraz irakurtzeko *Iru-txulo*-ri eta IRUTXULOKO HITZARI esker, gertutasunetik, eta, gero, bide bat egin dute zentzu horretan. Bestetik, *Iru-txulo*-k eta IRUTXULOKO HITZAK lagundu dute Donostiako historiari zein orainari begiratzeko beste modu

### Garaian garaiko erronkak eta lan egiteko moduak zeharo desberdinak diren arren, auzo eta herrietan jarri du fokua beti IRUTXULOKO HITZAK

bat sortzen eta sustatzen. Ez dute begirada hori sortu, beti egon delako hor, baina begirada hori nabarmen-tzen lagundu dute». Iartzaren ustez, «euskal komunitatea indartzeko, trinkotzeko eta komunitate horri ahotsa emateko tresna izan da eta da» proiektua, eta hori da ekarpen nagusia, «nahiz eta etengabe landu eta indartu beharreko zerbait den komunitatearen trinkotze hori». «Horrek izan behar du IRUTXULOKO HITZAREN helburua», gaineratu du.

Gertuko informazioan jarri du fokua Perezek: «Nik jarraitzen dut albiste txikiak gusturago irakurtzen handiak baino; auzoetako pertsona bereziak ateratzen dituzuenen, eta abar. Duela gutxi, adibidez, Harria parkearen alde asko borrokatu zen Altzako emakume bat atera zenuten [Hilari Villahoz], eta oso gustura irakurri nuen, gogorarazi zidalako nire garaian ere halakoak



egiten genituela. Akaso, zailagoa da bozgorailurik ez duten pertsona horiek topatzea bozgorailua dutenak baino, baina gertutasun horrek ematen duen satisfazioa oso handia da».

Maila pertsonalean ere badira ekarpen garrantzitsuak, noski, eta Zabalak nabarmendu ditu batzuk: «Oso gogoan ditut lan egindako San Sebastian egun guztiak, ezagunei eta senideei egindako elkarrizketak, elkarrizketen bidez ezagututako jende interesgarria, Donostiako txoko eta momentu asko ezagutzeko aukera eduki izana eta, batez ere, nabarmendu behar da hemendik jende on asko eta asko pasatu dela».

Ez dira gutxi izan hedabide honek hogei urteotan eduki dituen erronkak, baina, ez zailtasun gutxirekin, garaian garaiko egoeretara egokitu da, eta hala jarraitu beharko du:

«Kondenatuta gaude eguneratzeraz eta egokitzeraz, biziraun nahi badugu, behintzat. Aurrera begira, sare sozial deitzen dieten horien gainbehera eta toxikotasuna kontuan hartuta, argi dago berrasmatu egin beharko duzuela eta dugula geure burua, bizirauteko. Badaude gogoeta interesgarriak, eta zuek ere asmatuko duzue aurrera egiten», nabarmendu du Iartzak. Era berean, «euskararen moduko hizkuntza txiki batean eta gero eta turistikoagoa den hiri honetan, bere lekua egitea eta leku hori sendotzea da IRUTXULOKO HITZAREN erronka nagusia. Hedabidea donos-



Egungo lantalde ia osoa, urtarrilean, Prentsako Argia Sari jaso berritan. **IRUTXULOKO HITZA**

tiarren %100ak ezagutzea», gaineratu du Zabalak.

IRUTXULOKO HITZAK Donostiako eta munduko errealiteraz egokitzaren jarraituko du, eta beteko ditu, gutxienez, beste hogei urte, Donostia den horretan kontaktzen. Lankide ohi guztiek dituzte euren albiste kutunak —Gaztelubideko danborradan lehen aldiz emakumeak jotzen aterako zirenaren eta Peruene baserria botako zutenaren eskusibak, Donostiako kortsarioen inguruko artikulu haiek *Irutxulo*-n eta Donostiako base-riren inguruko erreportaje mardula,

besteak beste—, baina IRUTXULOKO HITZAN irakurtzea gustatuko litzazkieken albiste batzuk ere badituzte buruan: «Donostiako gazteek ez dute hiritik kanpo joan beharko bizitzera irakurtzea gustatuko litzaidake», dio Usabiagak. «Donostia euskaldun bat daukagula irakurtzea gustatuko litzaidake, ez jakintza aurretik baizik eta erabilera aurretik», dio Zabalak. Albiste horiek eta askoz gehiago gure lerroetan agertu daitezzen lan egiten jarraituko du IRUTXULOKO HITZAK, komunitatetik eta elkarlanetik, zalantzarik ez izan. ●

Anoeta Pasealekua, 30, 20014 Donostia

xantijatetxea@gmail.com

943-45 74 36

# Hogei urtez, azaletik mamira

↳ Maitane Aldanondo Gabilondo

*Iruxulo* aldizkariaren oinordekoak haren izana (eta hein batean izena ere) hartu zuenetik ibilbide mardula egin du, garai berrietara egokitzen lagundu dioten aldaketek lotua. Behin baino gehiagotan azalberritu da, baina aldagaiz mantendu duena, ordea, hirian gertatzen denaren berri emateko nahia da. Horren erakusle, urte guztiotan Donostian albiste izan zen hura islatzen duen ibilbidea. Ez da hautaketa erraza izan, irakurle! 2.434 zenbaki (bat gehiago esku artean duzun honekin) eta milaka berri baitira. Hutsuneak hutsune, daudenak, badira.

## 2006

### 2006-01-04

Lehen urteurrena urratzean, albiste historiko bat inork baino lehen eman zuten IRUTXULOKO HITZAK: Emakumeek

danborradan parte hartuko zuten. Gerora beste elkarte askok egingo zuten moduan, bandera igoera eta jai-tsierako protagonistek, Gaztelubidek eta Union Artesanak lehenengoz atea zabaldu zieten. Aipagarria da ere, istilu artean, erraustegia Landarbason jartzea onartu zuten udalbatzarra.



2005

2007



### 2005-01-19 / 2005-02-17

San Sebastian egunaren bezperan egin zuten jautzia *Iruxulo*-k IRUTXULOKO HITZARA. Zero zenbakia izan zen hura jai handiaren atarian kaleratu zuten, hedabidearen berri eman eta une hartan albiste zirenak jasota. Ia hilabete geroago ekin zioten ibilbideari. Otsailaren 17a mugarri, Jose Mari Amorrortu, artean Realeko entrenatzaile, izan zen lehen azal hartako protagonista nagusia, Udakiolaren baimenarekin.

### 2007-06-17

Ezustekorik gabe, aginte makila bosgarren aldiz hartu zuten Odon Elorzak, EB-Aralar eta PSE-EE alderdikideen babesa jasota. Hogei urtez jarraian alkate izatea zalantzarik gabe aipagarria bada ere, urte horretan gogoratzeko moduko beste albiste batzuk ere izan ziren: hiriko lehen biztanleen aztarnak topatu zituzten Ametzagainan, San Bizente elizak 500 urte bete zituen eta Rolling Stonesek Anoeta bete zuten.



## 2008

### 2008-12-02

Urtarrilean hartu zuten Realaren ardura Iñaki Badiolak eta zalantzarik gabe hurrengo hilabeteetan donostiarren ahotan gehien ibili zen izena berea izan zen. Edonola, abenduaren 1ean hil zen Mikel Laboari dagokio urte honetako azala, bere kanta orduan, orain eta gero ere entzuten jarraituko direlako. Ezin aipatu gabe utzi, hala ere, Gene Yurreren heriotza edota frankistek hildako donostiarrei estreinakoz egindako omenaldia.



2012

Bai, badakigu, azal hori 2011ko hondarrekoa da, baina ezin hobe islatzen du hastear zen urtearen mugarrria. Izan ere, hura buruan argitaratu zuten Lola Horcajo, Carlos Blasco eta Juan Jose Fernandez historialariek *San Sebastian-1912* liburua, 2012an mendea urratu zuten hiriko bost eraikuntzari buruzkoa: Viktoria Eugenia antzokiak, Maria Cristina hotela, Igeldo Mendia, Perla eta Topoa.



2013



2013-04-26

Eraiki aurretik eta ondoren ere zeresana eman duen proiektuetako bat Atotxako autobus geltokia da. Loiolako Erriberan eraikitzeko urtetako asmoa baztertuta, oposizioko alderdiek -PSE-EE, EAJ eta PP- ibaiartzean altxatzearen alde egin zuten. Halaber, 1813ko sutearen 200. urteurrenean, garaiko herritarren testigantzak euskaraz irakurtzeko aukera ekarri zuten urteak.



2012

2011

2011-06-14

Bi albiste lehia izan dira urte honen irudia izateko, baina garai amaiera irudikatzen duen Juan Karlos Izagirrerena gailendu da. Bost agintaldiren ondoren, PSE-EEK udal gobernua galdu zuen eta Odon Elorzak ez zuen kargua berretsi. Lau urterako aginte makila jaso zuen Bilduko alkategaiak. Lehia galdu duen albiste, berri, 2016ko Europako Kultur Hiriburu izendapenarena da.

2010



2010-06-15

Hiru urtez Bigarren Mailan jokatu ondoren, milaka donostiar kalera irten ziren Realaren igoera ospatzeko. Mendeurrenaren hurrengo urtean, jendetza batu zen hirian barrena osatutako ibilbidean eta bai udalak bai foru aldundiak antolatutako harreretan. Halaber, Donostia Ospitaleak 50 urte bete zituen, eta hirigintzari dagokionean, Auditz Akular gelditu eta San Bartolomeko lanak hasi zituzten.

2009-02-13

Zeruari begira bizi izan dira luzaroan Urumea ertzeko herritarrak, eta ziur, 2009a ez dutela ahaztu. Urtea elurrak zurituta hasi bazen ere, Txominen eta Martutenen ibaiak ganezka egitean eragindako kalteak ez ziren nolana hikoak izan. Beste albiste batzuk: Realaren mendeurrena, Aquarium berriaren irekiera eta Peña Gantxegiren heriotza.



2009

2014



2014-03-07

Uholdeak saihesteko udalak abiatutako hirigintza moldaketan ondorioz, Txomin Etxea eraitsi zuten. 1994. urtean okupatu zutenetik, leku bizia eta jende askoren etxea izan zen. Bere bidez harago, auzoaren eraldaketaren ikur bihurtu zen.

2015



2015-05-29

Udal gobernuan aldaketa berri bat ekarri zuten hauteskundeek. Lau urteko agintaldia amaituta, Bilduren lekua hartu zuen EAJk, aginte makila Eneko Goiak hartuta. Albiste esanguratsua izan zen ere hiriko kultur bizitzaren oinarri izateko asmoz atek zabaldu zituen Tabakalera berriaren irekiera.

2017-10-13

Altzako kirolegia eraikitzen ari ziren orubean amiantoa topatu izanak lanak geldiarazi zituen moduan, kutsatutako beste eremu batzuk atzemateko bide ere eman zuten. Hamarkada batzuk lehenago gunean zegoen Fibrocementos Vascos enpresaren isuriak ziren kutsaduraren eta kezken iturria. Lurrak gorde, bai; baina ez baititu zenbait gauza desagerrarazten.



2017



2016-12-30

Europako Kultur Hiriburutzak zeresan ugari eragin zuten inaugurazioko *Elkarbizitzaren zubia* argi eta itzal emanalditik hasita. Izenburuak berak ondo islatzen du izan zenari buruz askok duten iritzia.

2018



2018-03-09 / 2018-10-05

Aukera bikoitza da. Batetik, unean historikoa izan zen lehen greba feminista. Milaka emakumek planto egin, eta hiria gelditu zuten, mugitzeko. Urte hartan, gainera, aldizkaria berritu genuen eta itxuraldatutako argitalpenaren lehen protagonista Ane Gabarain aktorea izan zen.



2019



2019-02-22

Kote Cabezudo argazkilaria- ren aurkako lehen salaketa 2013an egin bazuten ere, 2018ra arte ez zuten espetxe- ratu. Bi hamarkadatan bere estudioan sexu abusua egin izana leporatu zizkioten 22 lagunek, eta instrukzioa amaituta, epaileak prozesatzea erabaki zuten 2019an.

# 2024



2023-05-05

Ez da urte honetako arazoa soilik eta, tamalez, ez dirudi konponbidea gertu dagoenik. Etxebizitza da donostiarron buruhauste handienetako bat: topatzea eta ordaintzea, noski. Espainiako Parlamentuak urte hartan onartu zuen etxebizitza legea egoerari buelta eman nahian. Oraindik ez du lortu.

# 2023

2024-11-01

Donostiako Udalak Egiako Kaleko Afari Solidarioak debekatu zituen «segurtasunaren» aitzakian. Egian segurtasuna guztien ahotan dago azken urteetan, eta iaz talde eskuindarren igoerarekin, egoerak okerrera egin zuen. Heine batean *Lo que no te cuentan de Donosti* taldeak sare sozialetan sustatuta, izua eta istiluak zabaldu ziren. Gezur horiei aurre egin eta egoeraren egia azaltzen ahalegindu zen IRUTXULOKO HITZA.



# 2022

2022-06-24

Jaia eta aldarrikapena orpoz orpo, mundu berri baten mapa marraztu dute Donostiako Piratak bi hamarkada luzean. Oztopoak oztopo, Aste Nagusia biziberritu, eta jakin dute La Flamenkan porturatzen, badia abordatzen eta kaia festen gotorleku bilakatzen. Hala, bestelako jai eredu bat sortu, eta zabaldu dute, urtez urte piratak gehituz bidean.



2021-09-17

Donostia Arraun Lagunak Kontxako bandera irabazi duen hiriko lehen emakumezkoen trainerua da. 71 urteko lehortea amaitu izana nahikoa ez balitz, urte hartan dena irabazi zuten: liga, Gipuzkoako eta Euskadiko txapelketak eta Kontxako estopada; errekorra ezarrita bi jardunaldietan, gainera. Gerora, badian balentria beste bitan errepikatu dute.

# 2021

2020-05-22

Ezin esan gertakari garrantzitsurik ez zenik izan edo azaleko albiste izatea merezi izan zuenik –Rosi Zarra Ertzaintza-aren pilotakada baten ondorioz hil zenetik mende laurden igaro izana, kasu–, baina ezinbestean pandemiak izan behar du hautua. Bizitza gelditu zuen COVID-19ak dozenaka berri eta bizipen ere ekarri zituen.



# 2020

Nico, Donostia

24/12/4 Donostia Ospitalea

# Gipuzkoa egunero sortzen da.

Pertsonen ongizate integral  
handieneko lurraldea izatea da  
gure asmoa.

**GIPUZKOA**  
Ekin. Zaindu. Bizi.

# Donostian arnas berri. Badator IGEa.

Isuri Gutxiko Eremua indarrean sartuko da Donostian, hiri osasuntsuago batez gozatu ahal izateko.





Bete egin zen San Telmo museoko aretoa IRUTXULOKO HITZAREN 20. urteurreneko ekitaldian.

# Hogei urtez Donostia tokikotik eta euskaraz kontatzen

IRUTXULOKO HITZAK hogei urte bete zituen otsailaren 17an, eta urteurrena ospatzeko, ekitaldi jendetsu bat egin zuten San Telmo museoan. Ekitaldia amaitzeko, mahai inguru interesgarri bat ere eskaini zioten publikoari.

📍 Sara Ibarburen Etxeberria  
📍 Joseba Parron San Sebastian

Otsailaren 17an, urteurren borobila ospatu zuen IRUTXULOKO HITZAK: Hogei urte bete zituen. Hogei urte Donostiaren berri ematen, tokikotik eta euskaraz, txikitik eragiten eta komunitate handi bat osatzen. Urteurren garrantzitsua zen, eta behar bezala ospatzeko, ekitaldi bat antolatu genuen San Telmo museoan.

19:00etan hasi zen ekitaldia, eta Andrea Bosch eta Xalba Ramirez IRUTXULOKO HITZAKO kazetariak egin zituzten aurkezle lanak: «Egun garrantzitsua da gaurkoa guretzat, IRUTXULOKO HITZAK, Donostiako euskarazko komunikabideak, hogei urte bete dituelako. Horregatik, gaurkoan, zuekin ospatu nahi izan dugu urteurren borobila», esan zieten gonbidatuei, ongiatorria emanez.

## IRUTXULOKO HITZAREN ibilbidea

«Hogei urte» azkar esaten da, baina urteurren horrek ibilbide bat du atzean. Ibilbide horren inguruan hitz egin zuten ondoren aurkezleek: «IRUTXULOKO HITZA 2005eko otsailean sortu zen; San Sebastian egunaren bezperan aurkeztu bazen ere, gaurko egunez argitaratu zen lehenengo alea. Donostian euskarazko esparru komunikatibo osoa garatzeko xedearekin sortu zen. Hiriko euskararen normalizazioan eragiteko eta beste lekuetan tokirik ez duten protagonisten eta gaien berri emateko jaio zen proiektua».

Bere aurrekaria *Irutxulo* aldizkaria izan zen, Bagera Donostiako Euskaltzaleen Elkarteak sortutakoa.



# Oiartzun



● Gozotegia: Ijentea, 2 · Tel.: 943-42 62 09
 ● Lantegia: Jai Alai, 6 · Tel.: 943-29 09 07

● [www.pasteleriaoartzun.com](http://www.pasteleriaoartzun.com)
● [obrador@pasteleriaoartzun.com](mailto:obrador@pasteleriaoartzun.com)
f
t



Ondoren, 2005ean, Bagerak Berria Taldearen Hitza proiektuarekin bat egin zuen, eta aldizkaria egunkari bihurtzeko fasean sartu zen; honen emaitza da IRUTXULO KO HITZA. Bagera eta Berriaz gain, Donostiako beste 40 elkarte, eskola eta eragilek parte hartu zuten eraketa honetan.

Aurkezleek nabarmendu zuten, «etengabeko eraldaketan» dago kazetaritza, eta garai berriei eta erronka berriei «aurre» egin behar die IRUTXULO KO HITZAK. «Azken urteotan, Internet bidez eta sare sozialen bidez urratsak eman ditugu, gure edukia formatu berrietara egokituz», adierazi zuten, datu garrantzitsu bat gehituz: «Oraintxe bertan, sare sozialetan jarraitzaile gehien dituen Euskal Herriko tokiko hedabidea gara».

#### **Aldaketaren lekuko**

Orain arteko ibilbidea erreparatu ostean, aurkezleek Eneko Goia Donostiako alkateari eman zioten hitza. «Hogei urte hauetan gauza asko gertatu dira gure hirian, eta *Irutxulo-k*, aldaketa horien guztien lekuko izateaz gain, aldaketa horietara egokitzen jakin izan du. Eta gainera, euskaraz, gure hizkuntzan. Donostia euskararen hiria bada, zuen hedabideari esker ere bada», nabarmendu zuen Goiak.

Alkateak nabarmendu zuen donostiar askorentzat IRUTXULO KO HITZA informatzeko «tresna garrantzitsua» dela, eta irakurle horiei konfiantza itzultzeko «lan eskerga» egin duela proiektuak hogei urte hauetan. «Ziur naiz hala jarraituko duzuela, izan ere,

donostiarren bizitzaren parte garrantzitsu bat izan zarete bi hamarkada hauetan», adierazi zuen.

#### **Bertakoen ahotsa**

Alkatearen ostean, Amets Ibero Bagerako kideak hartu zuen hitza. Atzera begira jarri, eta azaldu zuen duela hogei urte, Donostian, euskarazko komunikabide baten «behar nabarmena» zegoela: «Bertakoen istorioak, bertakoen hizkuntzan eta bertakoen ahotik jaso nahi genituen. Bagerak, Donostiako Euskaltzaleen Elkarte gisa, berea egin zuen kezka, eta hortik

### **Tokiko kazetaritzaren garrantzia nabarmendu zuen Beñat Parra zuzendariak, IRUTXULO KO HITZAREN egitekoa azalduz**

jaiotzen IRUTXULO KO HITZA. Helburu argi batekin, eta baliabide baino gogo gehiagorekin ekin zion proiektuari».

Iberoren hitzetan, «hizkuntza batek ezin du biziraun ez badu erabilerarik, eta ez da erabilgarria hizkuntza horretan informaziorik ezin bada jaso». Euskaraz irakurtzeko, entzuteko eta ikusteko «nahia eta beharra» aldarrikatu zituen, eta esan zuen Donostian, IRUTXULO KO HITZARI esker, badagoela horretarako aukera. «Zer izango litzateke Donostia jasotako albiste guztiak gaztelera

hutsez entzungo bagenitu?», galdetu zuen, erantzuna ere berak emanaz: «Ziurrenik, Erentxunen San Sebastian». Publikoaren barrea eragin zuen iruzkin horrek.

#### **Begiratzeko modu bat**

Jarraian, Beñat Parra IRUTXULO KO HITZAKO zuzendariak proiektuaren garrantzia nabarmendu zuen, fokua hainbat ataletan jarri. Tokiko kazetaritzaren inguruan hausnartu zuen, lehenik, zuzendariak: «Tokikoa begiratzeko modu bat da. Behetik gora begiratzeko modu bat, gertutik begiratzeko modu bat. Hiriaren argazki eta diagnostiko zabalena egiteko modu bat. Garaiaren kronika egiteko modu bat. Izan ere, non gorpuzten dira mundu mailako dinamikak, erronkak, arazoak, arrakastak eta ametsak, tokikoan ez bada? Herritarrengan ez bada?».

Eta ildo horretan, Donostiako auzoetan eta herrietan hedabide honek egiten duen lanketa nabarmendu zuen: «Donostia ez dago soilik badiara begira. IRUTXULO KO HITZAREN beste funtzio garrantzitsu bat da Donostia auzo eta herrietatik kontatzea. Hedabide bakarra gara astero-astero Altzan, Parte Zaharrean, Egian, Igeldon, Antiguan, Loiolako Erriberan, Bidebietan eta hiriko gainerako auzoetan dauden protagonistak gure lerroetara ekartzen ditugunak».

#### **Hausnarketen eta ekarpenen bilgune**

Ekitaldia borobiltzeko, mahai inguru



*Lukainkategi  
jatetxea*

Aingeru Zaindaria Bidea, 85  
20018 Donostia, Gipuzkoa

943-37 14 44



Inaxio Esnaola kazetaria, Aizpea Goenaga, Beñat Gaztelumendi eta Sua Enparantza gonbidatuekin, mahai inguruan.

batez gozatzeko aukera izan zen. Aizpea Goenaga aktoreak, Beñat Gaztelumendi bertsolariak eta Sua Enparantza dantzari eta aktoreak hartu zuten parte, IRUTXULOKO HITZAKO Inaxio Esnaola kazetariak gidatuta.

Mahai inguruarekin hasteko, duela hogeitaz urte bakoitzak zenbat urte zituen galdetu zien Esnaolak mahai inguruko gonbidatuei: «Nik, 45», esan zuen Goenagak; «nik, 18 egiteko, 17 urte», adierazi zuen Gaztelumendik; eta «urte eta erdi», esan zuen Enparantzak.

Aurkezleak gogorarazi zuen IRUTXULOKO HITZAREN zero alea 2005eko urtarrilaren 19an argitaratu zela,

San Sebastian egunaren bezperan; eta lehenengo alea, aldiz, otsailaren 17an. «Egun hartan, ikusi ala eskuratu zenuten zero alea edo lehen-dabiziko zenbakia?», galdetu zien Esnaolak.

Lehenengo aleaz baino, garai-ko giroaz gogoratzen dela azaldu zuen Gaztelumendik: «Gure etxean, *Irutxulo*-ko harpidedunak ginen, eta *Euskaldunon Egunkaria*-koak ere izan ginen, itxi zuten arte. Eta gero, *Berria*-koak ere bai. 2003an itxi zuten *Euskaldunon Egunkaria* indarrez, eta egunkaria beti izan zen gure etxean zegoen zerbait, desagertu ezin zena, eta guretzat, zutabe

inportante bat. Bat-batean ikustea zein erraz desegin zitekeen horrelako lan bat eta egitura bat, eta zein hauskor geratzen zen gure hizkuntza eta hiztun komunitatea... sentsazio hori uste dut gure adineko denok gogoratzen dugula. Aldi berean, uste dut bazegoela esperantza giro bat, hutsetik eta min horretatik beste egunkari bat ateratzea lortu zen. Hortik, proiektu oso bat eratu zen bere inguruan, Hitzaren proiektua, tokiko komunikabideei ere leku bat emateko».

Kronika egiten jarraitzeko asmoz, Esnaolak galdetu zien ea IRUTXULOKO HITZAK emandako zein albiste



dituzten gogoan; «bat edo beste izango duzue», esan zien aurkezleak. «Egia esaten badizut, ez», erantzun zion Goenagak, publikoari barrea eraginez. «Duela gutxi atera zen gure amonaren jatetxearen berria, oso ondo jaso, gainera. Baina nik, berri bat baino gehiago, iruditzen zait IRUTXULOKO HITZAK duen balioa dela, nola ematen dion ahotsa jende desberdinari, eta euskaraz aritzen den jendeari. Horrek sekulako balioa du», gehitu zuen Goenagak.

### Donostian bizitzeari buruz

Enparantzari Donostian gazteek duten etorkizunaz galdetu zion aurkezleak, eta aktoreak erantzun zion, bere ustez, «argi» dagoela «masifikazio» handia dagoela. «Gazteon ikuspuntutik, egia da batzuetan ez daukagula gogo handirik hemen bertan egoteko. Sekulako pena da, ze nik Donostia asko maite dut. Baina larunbat arratsalde batean paseo normal bat eman nahi izatea edo Saguesko petrilean eseri eta bete-betea ikustea... Gainera, prezioen igoera eskandalu bat da, eta gazteok dugun prekaritatearekin, ez da oso eramangarria», azaldu zuen.

Hogei urte hauetan, euskarren erabilerak kalean hobera edo okerrera egin duen galdetu zion Esnaolak Gaztelumendiri. «Datuek diote euskarak hogei urtean aurrera egin duela. Kontua da azken bost-sei urteetan horrelako lautada batean gaudela. Donostia euskararen hiria

dela esaten denean, esango nuke ez dela errealitate bat. Gehiago dela desio bat, helburu bat edo ortzi muga bat», erantzun zuen.

Horrekin batera, bere bizipenetan oinarritutako adibide bat ere jarri zuen: «Ni bertsolaria naiz, eta Antiguan edo Amaran bizi nintzenez, nire auzokide gehienek ez zekiten zertan lan egiten nuen. Pisu batera alokairuan sartu behar genuen, eta bikoteari eta bioi galdetu ziguten bakoitzak lana zertan egiten genuen, jakiteko ea ordaintzeko gai izango ginen ala ez. Bikotea irakasle izanik, esan zioten

### Donostia herrikoia, euskara eta kultura sustatzearen beharraz aritu ziren mahai inguruan, besteak beste

ondo zegoela, eta, niri galdetu zidatenean, eta bertsolaria naizela esan nienean, galdetu zidaten horrek ea dirurik ematen duen. Bertsolaritza zer den azaldu behar izaten duzu horrelakoetan, eta ez da kontua denok bertsozaleak izatea, baina existitzen garenik ere ez dakien jende pila bat bizi den hirian bizi gara».

### 2016ko Kultur Hiriburutza

Donostiaren historian, 2016ko Kultur Hiriburutza «mugarria» dela adierazi zuen Esnaolak, eta horren garrantzia-

ren eta legatuaren inguruan ere galdetu zion Goenagari. «Garrantzitsua izan zen, zalantzarik gabe, eta gauza asko mugitu ziren. Baina ez genuen jakin, gero, erein zen horri guztiari etekina ateratzin edo jarraipena ematen».

Bere iritziz, aktoreek ez dute «antzerkia sortzeko espazio bat» Donostian, eta horren garrantzia nabarmendu zuen: «Badirudi txorakeria bat esaten ari naizela, baina ez da hala; antzerkia egiteko, idatzi egin behar dira antzezlanak, eta horiek, idatzi eta probatu egin behar dira. Noren gain dago hori? Konpainien gain, eta konpainiek etekina atera behar dute, eta horretarako, bi hizkuntzetan egin behar da. Eta zeinek galtzen du bi hizkuntza horietan? Euskarak. Oso emanaldi gutxi egiten dira euskara hutsean, eta egiten direnak, aktore gutxiarekin egiten dira».

### Amestutako albisteak

Mahai inguruari amaiera emateko, aurrera begira, IRUTXULOKO HITZAK zein albiste ematea gustatuko litzaiekeen galdetu zien aurkezleak. Enparantzak argi zuen: «Txillardegiren liburutegia badagoela dioen albisteak». Gaztelumendik, etxean ohiturazkoa den «periodikoa» izatea opatu zion IRUTXULOKO HITZARI, eta azkenik, Goenagak «Donostia izatea Antzerkiaren Hiria» desiratu zuen.

Ea hemendik hogei urte pasatu baino lehen albiste horiek emateko gai garen, eta askoz gehiago ere bai. ●



## Eraberritu etxea obrarik gabe

# ZURE PINTURA DENDA

PINTURA · PAPER MARGOTUAK  
 EGURRA BABESTEKO PRODUKTUAK  
 LURRAK · BINILOAK · DEKORAZIOA  
 ALFONBRA ETA MOKETAK



**BENTA BERRI** Jose Goikoa Z/G - 943 15 55 79

**GROS** Secundino Esnaola, 19 - 943 28 26 11

**AMARA** Eustasio Amilibia, 11 - 943 45 67 04

**HERNANI** Akarregi Poligonoa, Pab.3A - 943 52 16 50

# Erraz aurreztu, nahi duzunerako.

Aktibatu TakTik Kutxabankeko  
App-ean.



Ezagutu aurrezki automatizatuko  
zerbitzu honen funtzionamendua  
[kutxabank.es](http://kutxabank.es) webgunean.



DONOSTIA  
SAN SEBASTIÁN

# Donostia**KIROLA**



# #KirolTxartela



**ENEKO GOIA LASO**  
DONOSTIAKO ALKATEA

**«Donostiarrok daramagun lekura doa Donostia. Udalak bere erantzukizuna du, handia gainera, bertan bizi garen guztiok dugun bezala»**

# Hogei urte, bost metro

**H**erriko aldezkarari honen jaiotzaren hogei urteak ospatzen ari gara, eta bi hamarkada hauetan gure hiriak izan duen bilakaera gainbegiratzeko ematen zaidan aukera probestu nahi dut.

2005eko otsailean, Rodriguez Zapatero agintzen zuen Espainian, 2004ko hauteskundeetan irabazi ondoren, Madrilen M-11ko atentatu odoltsuak gertatu eta egun batzuetara. Gasteizen, Ibarretxe zen lehendakari, eta Iruñean, Miguel Sanz.

2005eko abuztuan, ETAk bomba bat jarri zuen gure hiriko enpresa batean. Talde terroristak urte horretan egin zituen 25 atentatuetakoa bat izan zen. ETAk aktibo jarraitzen zuen, jende asko mehatxupean zuen, donostiarrak barne, eta ez zen bere amaiera ikusten.

2005eko otsailean, Odon Elorza Donostiako alkate zen, langabezia datua %7koa eta 183.000 donostiar bizi ginen gure hirian.

Anoetako estadioak hamahiru urte zituen. Realak 14. postuan amaitu zuen 2005-2006ko denboraldia, bere azken etapa ilunenean sartzeko zorian.

San Martin kaleak hiru errei zituen, eta Kontxa pasealekuak, lau. Bidegorri sarea ia ez zen iristen gaur egun dituen 70 kilometro baino gehiagoren erdira. Hiriko autobusek gasolioz funtzionatzen zuten, eta haien zarata eta ke beltza paisaiaren parte ziren.

Gaur egungo Donostian, %6,2ko langabezia tasa dago. Dagoeneko, 189.000 donostiar gara, duela hogei urte baino 6.000 gehiago. Jendea kanporatzen baino gehiago, beraz, hazten goazela dirudi, datozenak integratuz eta abegi emanez.

Espainiako Estatuan I+G+Bn inbertitzen dugun lehen hiria gara eta Europako adierazleetan gaude. Hainbat kirol talde eta kirolari ditugu eliteko lehiaketetan, bai gizonezkoen modalitatean, bai emakumezkoen.

Gaur egun, Donostia punta-punta-

ko enpresa edo teknologia ekimenen egoitza da: arlo biosanitariotik hasi eta ikerketa aurreratura iritsi arte, Champions League-an eta Europa League-an jokatzeko ari gara hainbat arlo ekonomiko eta aitzindaritan. Hori hiriaren eta donostiarren meritua da, zalantzarik gabe.

Hiria etengabe eraldatzen ari gara, azpiegitura askotan inbertsioak eginez: Topo berria, parke teknologikoa handitzea, aldaketa sakonak datoz Miramongo osasun hirian, kirol hiriaren birmoldatze sakona Anoeta estadioarekin hasi zen, estadio txikiarekin jarraituko du eta, laster, Illunberen berritzearekin sendotuko dugu. Bost edo hamar urtetan, gaur egun ezagutzen dugun hiriak bizitzeko eremu berri, hobetu eta atsegin gehiago izango ditu.

Gaur militarrek bizi diren tokian, laster familia donostiarrak biziko dira. Lehen ibaiak gainezka egiten zuen tokian, ibai parkeak ditugu gozamenarako. Danborraden kopuruak gora egin du etengabe, eta parte hartze parekidea ia %100ekoa izan da. Amara banatzen duten trenbideak urte gutxiren buruan desagertu egingo dira Donostia hobeto josteko, eta 1912an abian jarritako Topoak geltoki berriak izango ditu. Tabako fabrika zaharra kulturaren eta sormenaren fabrika da orain, eta ondoko Atotxako tren geltoki zaharra eraberrituta eta aukera berriak eskainiz ageri da.

Horrek guztiak ez du esan nahi arazoak ez ditugunik. Baditugu, beste edozein hirik bezalaxe. Etxebizitza arazo larria da, Donostian ere bai, baita gure ingurune hurbil eta urrunean ere. Irtenbideak bilatzea erronka bat da botere publikoentzat. Gure kasuan, ahalegin handia egiten ari gara etxebizitzak sustatzeko: Añorga, Infernua, Lorategi Hiria, Illarra, Igara, Jolastokieta, Kuartelak... Datozen hilabete eta urteetan esparru askotan ikusiko ditugu etxebizitza berriak eraikitzen. Helburua

hirian bertan bizi proiektua garatzeko aukerak ematea da, gazteak jomugan jarritz, gainera.

Immigrazioa fenomeno globala da. Gure hiria ere ez dago errealitate horretatik kanpo, eta leku batetik bestera mugitzen diren askok aldi baterako eta modu iraunkorrean aukeratzen dute Donostia. Egoera horiei erantzuteko gai izatea lehen mailako erronka da. Ikuspegi sinpleak aplikatzeak, borondate onez, baina beharrezko eraginkortasunik gabe, ez du epe luzerako konponbiderik ematen.

Alderdi hori bilakaera demografikoa-ekin gurutzatu behar da. Donostia duela hogeitau urte baino hiri zaharragoa da gaur egun. Seme-alaba gutxiago ditugu, eta horrek helduak kopuruz gehiago izango diren etorkizun baterantz proiektatzen gaitu, zainketa behar intentsitate handiagoarekin, baliabide gehiago bideratzeko premiaz, eta langileak sisteman integratzeko helburuarekin, edozein motatakoak direla ere. Horrek atea irekitzen die beste gai batzuei, hala nola, errealitate soziolinguistikoa-ri eta haren etorkizuneko bilakaerari.

Turismoa. Gaurko Donostian, pil-pilean dagoen beste gai bat. Denok fenomeno hau gorpuzten dugun bitartean, (oporrak planifikatzen, *low cost* hegaldiak erreserbatzen, asteburuetan Airbnb-ak alokatzen...), askok, etxean deabrutzen dute. *Mainstream*-a da «ni Parte Zaharrera ez naizela joaten» esatea, duela hogeitau urte batzuk joan ezin zutela kontuan hartu gabe. Sentitzen dugu gure bizi paisaiaren parte izan diren denda zoragarriak ixtea, eta hori galera da gure ondare historikoan, jakina, baina ez dugu onartzen azken urteotan ez garelako denda horretara joan zerbait erostera.

Nostalgia sentsazio tranpatia da. Iragan batera garamatza, ustez zoriontsuagoa eta perfektua izan zen garai batera. Baina denboraren joanak askotan arrazoimena engainatzen du, eta

sinetsarazten digu gauza batzuk era batekoak zirela, horrelakoak ez zirenean. Nostalgia eraman ditu batzuk eboluzioaren indar geldiarazle gisa jardutera. Pertsonak bezala, hiriak aurrera doaz, aldatzen doaz, eboluzionatzen eta eraldatu egiten dira. Herritarrak gara arduradunak eta erantzuleak. Donostiarrok daramagun lekura doa Donostia. Udalak bere erantzukizuna du, handia gainera, bertan bizi garen guztiok dugun bezala.

2025. urteko hiriak aldeak ditu duela hogeitau urtekoarekin alderatuta. Gauza batzuetan hobera egin dugu. Beste batzuetan, are gehiago hobetu behar dugu. Baina ez dut zalantzarik hogeitau urte barruko hiria donostiarrek eraiki eta protagonizatu nahi dutena izango dela. Aldatzen ez dena, eta aldatu ez dena, bere esentzia da, bere arima. Donostia hiri zoragarria da oraindik, bere nortasunarekin, eta donostiarrok harro gaude bertan bizitzeaz eta bertako kide izateaz. Niretzat, nire hiria munduko hiririk onena da. Duela hogeitau urte, eta gaur.

Kontxako pasealekuaz eta bere lau zirkulazio erreie (noranzko bakoitzeko bi) hitz egin dut arestian. Pasealeku hori, gaur egun, bost metro zabalagoa da oinezkoentzako aldean, eta bost metro estuagoa autoak doazen aldean. Gaur egun, eremu lasaiagoa eta atsegina da, eta oinezkoek eta bizikletek protagonismo handiagoa dute bertan. Gure Donostia maitea nondik datorren eta norantz doan erakusten duen adibide ona dela iruditzen zait. Bost metro besterik ez dira, baina hiriaren bilakaera ondo azaltzen dute.

Zorionak IRUTXULOKO HITZA, aunitz urtez!



**«Denboraren joanak, askotan, arrazoimena engainatzen du, eta sinetsarazten digu gauza batzuk era batekoak zirela, horrelakoak ez zirenean»**

**Kazetaritza  
herrikoia**



**Komunitatea**



**Gertukoa**



**Behetik  
gorako  
kazetaritza**






**Donostia  
herrikoia  
eta anitza**

**ndu  
a da  
koa**

**Tokiko  
kazetaritza**

**KO HITZA**



**Euskaraz**



**20 urtez**



**AMAGOIA MUJIK A TOLARETXIPI**  
BERRIA-KO ZUZENDARIA

**«Berehalakotasunaren menpe eta zabor informatibo askoren erdian bizi garen honetan, inoiz baino beharrezkoagoa da kazetaritza. Eta halaxe IRUTXULO KO HITZA ere»**

# Kazetaritza behar dugu

**B**adira hogeit urte BERRIA Taldeak, Bagera Donostiako Euskaltzaleen Elkartek eta Donostiako beste 40 eragilek (euskaltegiak, elkarteak, eskolak, kirol taldeak...) elkarlanean IRUTXULO KO HITZA martxan jarri genuela. Zorionak urte hauetan guztietan proiektua aurrera ateratzen lagundu duzuen guztiei.

Hogei urte mundua hemen eta euskaraz kontatzen, hogei urte Donostiako auzoen berri emanez. Hogeit urte tokiko kazetaritza egiten. Kazetaritzak, gaur eta hemen, berebiziko garrantzia dauka gizarte justu bat eratzeko. Demokrazia- ren giltzarrietako bat baita prentsa: botere egituren kontrola eta gardentasuna bermatzen ditu, eta herritar informatuak hezten. Errealitatearen kategoria sortzen du, garai baten kontakizuna. Zer gertatzen den, zer den garrantzitsua, zergatik. Hori guztia ulertzeko, testuinguruan kokatzeko giltzak eta iparrorratza ematen ditu. Proiektu komunikatiboek, nazionalak zein tokikoak izan, betetzen duten funtzioa aldarrikatu behar dugu.

Ez dira garai onak kazetaritzarentzat. Hedabide eredu a bera dago zalantzan az-

keneko urteetan. Presaka gabiltza, inoiz baino gehiago, etenik gabeko aldaketen zurrunbiloan. Mundu aldakor horretan gabiltza gu ere, kazetaritzaren etorkizuna nondik etorriko den sumatu nahian. Ezin gara, ordea, zurrunbilo horretan zorabiatu. Gure proiektuak egokituz egin behar dugu aurrera, bai baitakigu zertarako gauden hemen: kazetaritza ona egiteko, euskaldun guztiontzat eskuragarria eta argigarria izango dena.

Informazio oldeak itota, berehalakotasunaren menpe eta zabor informatibo askoren erdian bizi garen honetan, inoiz baino beharrezkoagoa da kazetaritza. Eta halaxe IRUTXULO KO HITZA ere: Donostian donostiarrentzat sortua, herritarren behar eta kezkekin bat egiten duena, fidagarria, kalitatezkoa... Horrela jokatzeko baliatu behar ditugu teknologia berriek ematen dizkiguten heldulekuak.

Kazetaritza ona egiteko eta gure proiektuen bideragarritasuna bermatzeko, ezinbestekoa dugu gure komunitatearen babesa. Horrexek ematen digu aukera inongo menpekotasunik gabeko kazetaritza egiteko.



**IPURU S. L.**  
**ERAIKUNTZAK**

Mundaiz bidea, 10  
2. solairua - 24. bulegoa  
Tel.: 943-42 41 21  
20012 DONOSTIA  
[www.ipuru.com](http://www.ipuru.com)



Lanbide  
Heziketako  
Ikastetxe  
Integratua



**easo**  
**politeknikoa**

Aitzol parkea, 2, 20011 Donostia 943-45 54 22 [www.easo.eus](http://www.easo.eus)



# Euskaraz hitz egiten badakizu?

Euskara ikastaroak



**GROS**-en  
ikas ezazu

Kolon pasealekua, 5 behe  
GROS - 20002 DONOSTIA

☎ 943-27 81 55 ✉ [hitzez@hitzez.eus](mailto:hitzez@hitzez.eus) 🌐 [www.hitzez.eus](http://www.hitzez.eus)



**DANI GOÑI IRAZUSTA**  
ADMINISTRATIO KONTSEILUKO  
KIDE OHIA ETA BAGERA  
ELKARTEKO KIDEA

«Donostiar  
euskaldunok,  
euskaratik eta  
euskaraz, Donostiaren  
bilakaera eta bertan  
gertatzen dena  
ezagutzeko eta  
jarraitzeko  
ezinbestekoa dugun  
komunikabidea da  
IRUTXULOKO HITZA»

## Hogei urte?

**D**ani, IRUTXULOKO HITZAK 20 urte beteko ditu otsailaren 17an. Zu sorreratik izan zarenez proiektuaren inguruan, gustatuko litzaiguke zure iritzi artikulatu bat argitaratzea aterako dugun ale berezian. Animatuko zara?»

Alferkeriagatik, zalantza txikia egin nuen, baina, nola esan ezetz, eta burua lanean hasi zitzaidan. Lehen unean, 20 urteena etorri zitzaidan gogora. Ni oso txarra naiz urte kontuetan, dantza egiten didate oso erraz, eta inoiz ez dut jakiten honako edo halako hura zein urtetan gertatu zen. Nola begiratzen den, 20 urte asko dira, baina izan daitezke gutxi ere. Sorreratik egon nintzenez, inguruan gabe, nahiko barruan, sorrera hori askoz atzerago joaten zitzaidan: 30 bat urte bai.

Baina, ezin zuten oker egon. Bertan ari direnek hogei badiote, hala izango da. Berehala ohartu nintzen nire nahaste horren arrazoiaz. 20 urte dira, bai, IRUTXULOKO HITZA sortu zela, 2005ean. Ez zen hutsetik sortu, ordea. Aurretik, hamaika urte lehenago, *Irutxulo* astekaria sortua genuen Bageran. Hamaika urte egin zituen *Irutxulo*-k (1994); eta hamaika, euskaldunok ondo dakigunez, ez da gutxi.

Euskal prentsarentzat ez ziren une errazak; eta noiz izan dira, ba? Bi urte lehenago, 2003an, itxi zuten *Euskaldunon Egunkaria*. Euskararen eta euskaldunon aurkako oldarraldiek ez dute etenik. Eta, zoritxarrez, ez dute izango Espainia eta Frantziaren menpe gauden bitartean. Zugazartek, bere biñetan, duela gutxi galdetzen zion Txillardegiri oldarraldiaren gaineko iritzia; «zein mendetatik hasita?», honen erantzuna.

Oldarraldiak oldarraldi, aurrera egin

behar, eta berehala jaio zen *Berria*, 2003. urte berean. Handik bi urtera, Donostiarrentzat onena zelakoan, Bagerak bat egin zuen Berria Taldearen *Hitza* proiektuarekin, eta Donostiako beste 41 elkarte, eskola eta eragileren babesarekin, IRUTXULOKO HITZA sortu genuen. *Irutxulo* astekaria zenak egunkari formatua hartu zuen eta horrela jardun zuen 2013ra arte. Orduan, berriro astekari bihurtu eta, egunerokoa sarean, bere webgunean.

Azken urteotan, erdigunetik alden, belaunaldi aldaketari leku eginez, inguruan ibiltzeari utzi gabe, erabiltzaile eta irakurle gisa aritu naiz. Pozik, gainera; IRUTXULOKO HITZA den proiektu duin eta gustagarriaz gozatzen. Donostiar euskaldunok, euskaratik eta euskaraz, Donostiaren bilakaera eta bertan gertatzen dena ezagutzeko eta jarraitzeko ezinbestekoa dugun komunikabidea. Lan bikaina egiten ari zarete.

Eta horren froga, aurten, Prentsako Argia Saria jaso izana. Zorionak! Mereziz duzue! Zuen eguneroko lanak eraman zaituzte horrelako aitopen saria irabaztera. Pozten naiz zuengatik eta donostiar guztiengatik, pozgarria baita horrelako produktu bat eskuragarri izatea paperean astekari gisa, eta, sarean, egunerokoaren jarraipena egiteko.

Zorionak eta mila esker lantalde osoari, eta, nola ez, ahaztu gabe, urte hauetan guztietan proiektuaren inguruan ibili diren langile, kolaboratzaile eta laguntzaile guztiei.

Orain, aurrera egin behar. Izango dira beste bost, hamar edo hogei urte. Nork daki? Eta amaiera eman behar bazaio beste proiektu eraginkorrako bati bide emateko, ba, emango zaio, orain arte egin den bezala. Aurrera!

# Irutxulok hamaika zulo

**I**rutxulo hitza entzun edo irakurtzean oroitzapen asko pizten zaizkit buruan, baina dudan lehena, zalan-tzarik gabe, hau da: gurasoen etxe-ko salako mahaitxoan *Irutxulo* aldizkari zaharraren aleak sakabanatuta, Oskorriren letrak biltzen zituen kantu liburuxkaren batekin batera. Amak euskaltegitik etxera ekartzen zituen bi *must* ziren. Etxeko dekorazioan integratuta zeuden elementuak izateaz gain, kontu potolo baterako sarrera ere baziren: *Irutxulo* aldizkaria eta Oskorriren kantak izan ziren amarentzat euskararekiko hari bat, bide bat, sarrera bat. Gustatzen zait gogoratzea nola nahasten ziren aitzak abesten zizkigun *Caballo prieto azabache* eta *La de la mochila azul*-ak, amak ezin hobeto inotonatzen zituen *Axun, kla, kla* eta *Furra, furra* horiek. Akaso, hortik dator lagun arteko bazkaloste eternaletan deskantsurik gabe abesteko datorkidan zaletasuna.

Gogoratzen ez dudan norbaitek, gogoratzen ez dudan uneren batean kontatu zidan Donostiari Irutxulo deitzen ziotela aspaldi, itsasoko aldetik begiratuta dituen hiru zulo edo sarrerei erreferentzia eginez. Merina Grisekoentzat zuloa irteera izan daiteke, baina nik elementu horren bi noranzkotasuna baliatuko dut, eta sarrera gisa begiratuko diet. *Irutxulo* aldizkaria amarentzat hizkuntzarako sarbide bat izan zen, gure mendien eta irlaren arteko zuloak itsasotik zetozen barkuentzat hirirako sarrera izan ziren moduan. Niretzat ere, donostiarra izan arren, ezagutzen ez nuen hiri baten atea ireki zidan IRUTXULO KO HITZAK; orain, ezin dut imajinatu Donostia horrela ez bada.

Ezin dut imajinatu beso zabalik hartu nauen Egia osteguneroko enkartelada, Egia Biziriketuen pertseberantzia edo Ongi Etorri Eskolarako kideen gogo nekaezina gabe. Ezin dut imajinatu sehaska lana egin didan Aiete Euskara Batzordeak auzoan landatu duen hazi esperantzagarria gabe. Ezin dut imajinatu gure hiria espekulatuzaileen aurrean aurpegia eman (eta gorputzak jarri), eta etxebizitza eskubidea tinko defendatzen duten horiek gabe. Ezin dut imajinatu eraiketa matxista bat dagoen aldiro, euri zein kazkabarpean ere, kalera ateratzen den mugimendurik gabe. Ezin dut imajinatu erresistentzia transfeministarik eta ipurtzulorik gabe. Ezin dut imajinatu Donostia, horren guztiaren berri ematen duen IRUTXULO KO HITZA gabe.

Ale berezi honetan utzi didaten txokotxo hau erabiliko dut IRUTXULO KO HITZARI eta bera egiten duen komunitate osoari eskerrak emateko: euskararen haria heldu nahi dutenentzat abiapuntu bat izateagatik; denontzat bizigarria, transfeminista, solidarioa, antifaxista eta beste ehunka *-ista* eta adjektibo indartsu dituen hiriaren bozgorailu izateagatik; 'garrantzitsua zer den' erabakitzen duten hedabideen itzalean euskarazko, kalitatezko eta gertuko kazetaritza egiteagatik eta, azkenik, eguneroko lan txiki baina ezinbestekoetan eta emozioz betetako *zierre* amaigabeetan nekaezintasunez, maitasunez eta adorez sendo eusteagatik —Nerea, Esti, Eneritz, Inaxio, Beñat, Iñaki, Pello, Josean, Isidro... zerrendak luzeegi joko luke denak sartuko banitu—. Eskerririk asko, IRUTXULO KO HITZA. Beste hoge baietz!



**IRATI SALSAMENDI**  
IRUTXULO KO HITZAKO  
KAZETARI OHIA

«Ezagutzen ez nuen hiri baten atea ireki zidan IRUTXULO KO HITZAK; orain, ezin dut imajinatu Donostia horrela ez bada»



# «Bizirik dirauen Donostia bati argazkiak egiten jarraitu nahi dut»

## JOSEBA PARRON SAN SEBASTIAN

IRUTXULOKO HITZAKO argazkilaria

IRUTXULOKO HITZAREN azal nagusien atzean dago Joseba Parron San Sebastian argazkilaria. Gaixotasun luze bat igaro berri, bizitzaz ari da, bizipozez. Argazkiak egitea da bere pasioa, eta ezkeraren alderdi humanoa «inoiz baino gehiago» aldarrikatzeko erabili nahi ditu bere irudiak.

📷 Xalba Ramirez Cruz

### Noiztik daramazu IRUTXULOKO HITZAN?

2016tik daramat. Nerea Lizarralde zuzendari ohiak bota zidan proposamena eta, ordutik, astero. *Irutxulo*-ren hastapenetan ere izan nintzen, Ander Usabiaga eta Aitziber Gurutzeagarekin. Komiki tira bat egiten nuen: *Neka*. Neskatok gazte bat zen, garaiko euskarazko prentsaren inguruan hausnartzen.

### Desberdina zen dena garai hartan, ez?

Bilbo plazako erredakziora joaten nintzen, astero, nire binetatxoa eramatera, paperean. Eskanerrik ere ez nuen garai hartan.

### Eta argazkiak?

Karretearekin egiten genituen argazkiak, eta imajina dezakezu. Herri mugimenduentzako izugarritzako argazki pila bat egiten nuen garai hartan, dokumentazio lan itzela, baina garaiak nola ziren, eta sarekadak zirela eta, artxibo guztia eramaten zuten polizia tarteka. Herri mugimenduaren artxibo handi bat Madrilan dago.

### Hain zuzen, prentsarekin harreman nagusia herri mugimenduen bidez egin duzu.

Argazkigintzan beti izan dut nire arlo pribatua; sormen lanerako eta jolas estetikorako. Eta, bestetik, herri mugimenduei eta egitasmo sozialei lotutakoa. Dokumentazio lana izan da nire helburuetako bat. Prentsarekin lehenengo harreman *Gazte Egin*-en izan zen. Arte Ederretako Fakultatetan nengoenean, *Egin*-eko gazte sailarekin kolaborazioak egiten nituen, idazten nuen, eta *Txapela Me-*



LEGAZPI 6  
EUSKALTEGIA

📍 Guridi Maisua, Z/G, Antigua · Kanpandegi, 1, Parte Zaharra

☎ 943-2199 07

✉ legazpi6@legazpi6.eus

*talikoa* egiten genuen, kontrazalaren diseinua.

### **Erabat aldatu da dena.**

Nik ez dut bizi izan hain gertutik, baina nire kide argazkilariek azkar batean joan behar izaten zuten errebelatze-  
ra, bertan aukeratu, egunean bertan ateratzen zelako, eta dena paperean eta analogikoan. Orduan, egunkari bakoi-  
tzak bere errotatiba propioak zituen. Pentsatzea makina guztiak geldirik daudela, gaueko hamabietan, zure



**«Nork bere historia kontatzeak ahalduntzea dakar, saltzen diguten memoria estandarrean, nork berea aldarrikatzeko»**



Aldapetako baserri honen eraisketarekin, garai baten amaiera erretratatu zuen. **J. PARRON**

argazkiaren zain daudelako... Ze pre-  
sioa! Digitalizazioak kontrol handiagoa  
ekarri du emaitzengan eta azkartasun  
eta erosotasun maila handiagoa.

### **Irudi gutxi zeuden garai hartan, egun irudi gehiegi.**

Irudiak garrantzia du, dena irudi bila-  
katu delako. Norbera ere irudi bilakatu  
da, eta gauden munduaren ezaugarri  
bat da nork bere burua nola erakusten  
duen sare sozialetan eta irudi bilakatu  
duen gizarte mailan harremantzeko.  
Saturazio ikaragarria dauka, dena  
oso azkar pasatzen delako. Dena irudi  
bilakatzeaz gain, aldi berean, abiadura

ikaragarria da; bai mugikorren bidez,  
teknologia digitalek ahalbidetzen dute  
20 minutuan argazkia Alderdi Ederreko  
izkina batean editatzea eta erredakzio-  
ra bidaltzeko, berehala argitaratu behar  
direlako, bihar berriro ere beste zerbait  
gertatuko delako. Munstroaren irudi  
gosea etengabe elikatu behar da.

### **Albo kalteak ditu, beraz?**

Horrek dakar askotan aukera gutxi  
hausnartzeko. Garai batean, argazki  
gutxi egongo zen, baina askoz ikoni-  
koagoak dira, gaur egun direnak baino.  
Garai batean, irudi batek sekulako  
indarra hartu zezakeen. Gaur egun nola

azkartu den guztia, hori guztia deusez-  
tatu du eta dena da kontsumo azkarra,  
oso azkarra.

### **Zer irudi duzu zuk gogoan Donostiari dagokionez?**

Garai batean, denok egon gara oso  
markatuak gatazka politiko-militarrak  
sortu zituen irudiekin. Bulebarrean  
izandako istiluak, ehunka gazte kapu-  
txadun Poliziari aurre eginez, Polizia  
Bulebarra ixten. Hor badaude irudi iko-  
niko asko. Baina baita ere Realak Liga  
horiek irabazi zituenekoa, edo elurra  
egin zueneko.

### **Eta zuk egin duzun baten bat?**

**ZORIONAK**  
**IRUTXULO KO**  
**HITZA**

**LAB<sup>1</sup>**  
EUSKAL  
SINDIKALISMO  
ERALDATZAILEA

Donostia, San Bladi, 1 behea P.K. 20013  
donostia@lab.eus | 943 45 86 40

Orain, milaka argazki egiten ditugu argazkilariok. Nire artxiboa erraldoia da. Horrek ere zailtzen du, argazki kutun asko ditut. Ez nuke jakingo esaten, benetan zaila, da. Herri harresia egin zenean, Bulebarrean. Hor badituz argazki indartsu asko. Greba feministetan sortu diren irudi ikaragarri horiek. Beti saiatu naiz nik dakidan horrekin kolaboratzen.

**Oso gertukoa da, baina Palestinaren aldeko manifestazio erraldoia izan zenean egin zenuen argazkia mundu osoan zabaldu zen.**

Hori ere bitxia da. Argazki txiki bat egiten duzu, zure medio txikian, zure herri txikian. Eta mundu osoan zabalitzen ari dira zure irudia milaka pertsona. Nik ez dut arazorik egile eskubideekin, are gutxiago honelako egoeretan, inporta duena mezua denean. Garrantzia dute ekintza egiten dutenak, 40.000 lagun horiek. Nik teknika ahalik eta hoberen egiten dut, baina ez naiz sentitzen horren egile. Jendearenak dira.

**Egun ere, hainbat mugimendurekin zabilta lanean.**

Mila saltsetan ibiltzen naiz, bai. Nire biografian herri mugimenduetako komunikazio taldean egon izan naiz beti. Eta nire irudiak pila bat erabili dira. Asko ezin dira esan.

Prensa lanak ez du ematen bizitzeko, eta lana egiten dut arlo sozialeko beste ekimen batzuekin; Emausekin garapen pertsonala lantzeko proiektuak egiten ditut, argazkigintzaren bidez arlo artistikoa garatzeko. Eta hainbat elkarterekin: Sorginlore, Iker-

tze, Saretuz, Mugarik gabe, Behatokia, Bagera...

**Fotokazetaria zara?**

Nik argazkilaria naizela diot beti. Ez dago egun bakar bat ere argazkiak egiten ez ditudana. Niretzat, estetika badu barne antolamendurako garrantzi handia eta arazo estetiko horietan jarduteak laguntzen dit nire mundu ikuskera osatzen. Fotokazetaria sentitzen naiz, natur argazkilaria ere bai.

**Zer behar du honelako argazkilari batek?**

Tradizio baten parte sentitzen naiz. Kale honetan bertan argazki denda zuen Foto Mikik edo Paco Marinek... horiek hiriaren edo herriaren dokumentazioa egin dute, askotan nahigabe edo halabeharrez. Hirian gertatzen ziren gauzekin egiten zuten, eta horrek, azkenean, sekulako ondarea ekarri du. Postigo, edo gaur egun Etxezarreta edo Urberen moduan. Horiek guztiak gure bizitzaren erretratuak egiten dituzte, hiriaren eraldaketa kontatuz.

Niretzat, garrantzia izan zuen Aldapetako baserri hura bota zutenean. Gaur egun argazki hori ikusten dut eta iruditzen zait egunen batean norbaitek ikusi ahal izango duela nola suntsitu zen gure historiaren zati bat. Eta ikusi ahal izango du nola izan zen bizimodua lehendik. Bestela, badirudi, ez dela existitu. Eta berdin jendea, jaiak, janzkera...

Gaur egun, gero eta jende gehiago etortzen zaizu, galdetu gabe non aterako den ere, argazki bat egiteko eskatuz, kaldererotan edo Lilatoian, berdin

zait. Kaleko jendearekin ere izugarri gertatzen zait. Hurbiltzen zaizu kalean lo egin duen pertsona bat eta eskatzen dizu argazki bat egiteko. Telefono asko ditut horrela, argazki bakarra bidali die dalako. Jendearentzat gero eta garrantzitsuagoa da irudi horietan agertzea. Ondorenera pasatu nahi dutelako, edo nolabait hor egon direla gogoratzeko.

**Tokiko kazetaritzarekin alderatzen dut hau. Albistea ez den zerbaiten bidez, garairen kronika egiten da.**

Eta nola antolatzen dugun begirada hori. Artxibo lana garrantzitsua: izugarriko lan metodikoa eskatzen du eta errespetu handikoa. John Bergerrek ere esaten zuen: argazki oina inportantea



«**Irudiak garrantzia du, dena irudia bilakatu delako. Norbera ere irudi bilakatu da**»

da; zer da argazki hori, non kokatzen da. Ondo antolatu behar da. Matia kaleko argazki bat, 30 urte barru, zer da? Agian, kale hau ez da existitzen jada. Gordegia izugarriko lana egiten ari da, Altzan ere egin dituzte horrelakoak, baita Kutxatekak eta Filmategiak ere. Nork bere historia kontatu ahal izateak dakarren ahalduntze erraldoi hori. Hemen egon ginen parke hau aldarr-







Hiriaren kronika egiten ari da Parron, gai sozialak erdigunean jarriz. J. PARRON

katzen, normaltzat dugun parke hau autoak aparkatzeko zen. Saltzen diguten memoria estandarrean, nork bere memoria aldarrikatzeko. Antigua Berri padura bat zen gu txikiak ginela, eta gu astapetroarena egitera joaten ginen. Dirudi dena dagoela betidanik, baina dena aldatzen doa, etengabe.

**Egunerokotasunaren argazki bat bihurtzen da garai oso baten irudi bat.**

Tokiko kazetaritzak eta argazkilaritzak ahalmena ematen dizu gauza txikietan fijatzeke. Prentsa bestelako erritmoe-tara behartuta dago. Gauza handietan galdu egiten gara, eta pertsonen gauza gertukoenek erakusten digute bizitzak badituela bestelako aldeak.

**Eta hortik gauza handiak kontatu daitezkeela.**

Oso mendebaldarra da txikia/handia, goia/behea logika. Hori apurtu eta konturatu behar gara dena dela bat. Handia txikian ikusten da eta txikiak eraikitzen du handia. Unibertseta deitzen diogun hori, unibertso txiki askoz osatua dagoela.

**Gauza asko aldi berean izan da herri hau.**

Bulebarrean izugarritzko istiluak zeuden bitartean, Trinitate plazan harriak altxatzen egon zitezkeen, eta elkarte batean afaltzen eta soto batean talde bat entseatzen. Agenda mediati-koak markatzen du errealitatea, baina

oso zabala zen, eta bizipen izugarriak zeuden, eta daude.

**Argazkia non egiten duzun.**

Historia bere zabaltasunean ulertu ahal izateko tresna dira argazkiak. Historia ez da soilik prentsak eta historia liburuek kontatzen dutena. Milaka bizipen pertsonalen baturak dira. Horiek sortu dute errealitatea.

**Zein argazki egin nahiko zenuke?**

Argazkiak egiten jarraitu nahiko nuke. Gure Donostia desagartzen ari dela entzuten dugu etengabe. Nik bizirik dirauen Donostia bati argazkiak egiten jarraitu nahi dut. Erakutsiko luke jendea bizirik dagoela bestelako interes komertzialen gainetik. ●



Abuztuak 31 kalea, 23  
Parte Zaharra, Donostia  
943-42 63 62  
[www.restaurantegandarias.com](http://www.restaurantegandarias.com)





# «Ondo informatuta egon behar duzu txikitik gauzak aldatzeko»

## AMAIA PORTUGAL GONZALEZ

Kazetaria

IRUTXULOKO HITZAREN sorrera ondo baino hobeto ezagutzen du Amaia Portugal Gonzalez kazetariak (Egia, 1984). Bruselan (Belgika) bizi da egun, eta EITBren irratien berriemailea da. Aitortu duenez, IRUTXULOKO HITZA jarraitzen du Donostiaren eta Egia auzoaren berri izateko.

↳ Inaxio Esnaola Aranzadi

### Noiz izan zenuen IRUTXULOKO HITZAREN berri?

Unibertsitatean nengoela, tarteka, *Irutxulo* aldizkarian kolaboratzen hasi nintzen. Dena dela, lehen artikulua Batxilergoko ikasketak egiten ari nintzela idatzi nuen, 2001ean, oker ez banago. Aldizkarirako kolaborazioak, berriz, 2002tik aurrera egin nituen. Gerora, IRUTXULOKO HITZAREN proiektuaren berri lan eskaintzaren iragarkiarekin izan nuen, ziurrenik. *Irutxulo*-n kolaboratzen nuen arren, ez nekien egunkari bihurtuko zenik.

### Noiz hasi zinen IRUTXULOKO HITZAN lanean?

2005eko urtarrilean, egunkaria martxan jarri zenean. Irutxulo aldizkariko lantaldearekin bat egin genuen beste hiruzpalau kazetarik. Jakina denez, zero ale bat kaleratu genuen urte hartako San Sebastian egunaren bezperan. Lehen zenbakia, berriz, gogoan dut 2005eko otsailaren 17an kaleratu genuela.

### Kazetaria, zuzendariordea eta kolaboratzailea izan zinen. Etapa bakoitzeko esperientzia nola laburbilduko zenuke?

Kazetari gisa izan nuen lehen esperientzia profesionala da IRUTXULOKO HITZAK eskaini zidana. Zalantzarik gabe, sekulako eskola izan zen niretzat. Unibertsitateko teoriarekin batere zerikusirik ez zuena. IRUTXULOKO HITZAN lanean hasi nintzenez, oraindik Kazetaritza ikasketak egiten ari nintzen, eta gogoan dut kazetaria nintzela esateak lotsa ematen zidala.



# DONOSTIA BIZI, DONOSTIAN EROSI

Orduan, oraindik ez nintzen kazetari sentitzen, ofizioa ez nuelako ezagutzen. Horregatik diot kazetaritza zer den IRUTXULO KO HITZAN ikasi nuela.

Zuzendariorde postua behin-behinekua izan zen, garai zail batean murgildu zelako hedabidea. Aitortu behar dut ardura handiegia izan zela niretzat, 23 urte nituelako, baina beharrezkoa zelako onartu nuen. Horrela ere, beste gauza batzuk ikasi



Amaia Portugalgek zuzendariordea zenean eman zion Hitzza Saria Xabi Prieto jokalariori.



«Kazetari gisa izan nuen lehen esperientzia profesionala da IRUTXULO KO HITZAK eskaini zidana»

nituen. Denbora labur batez izan nintzen zuzendariordea, eta zubi moduko bat izan zen, berriz ere, erredaktore izatera pasatu nintzelako. Interesgarria izan zen kazetari postuan alor desberdinak landu nituelako lehen etapan eta bigarrenean. Kirol kazetari gisa hasi nintzen, eta zuzendariorde izan ondoren, bestelako gaiak landu nituen. Esaterako, solasaldi eta hitzal-di askoren kronikak idatzi nituen, eta iritziaren atalaz ere arduratu nintzen. Oso aberasgarria izan zen niretzat.

2005etik 2008ra aritu nintzen IRUTXULO KO HITZAN lanean, eta kolaboratzaile askoz aurrerago bihurtu nintzen. Oker ez banago,

2016tik 2019ra idatzi nuen *Loretope-tik* atalean. EITBko lana egonkortu nuenean, uztea erabaki nuen arrazoi desberdinengatik. Dena dela, oroitzapen oso polita daukat. Batez ere, gai baten inguruan hitz egiteko aukera erraza eta aproposa zelako. Donostiaren ikuspegi propioa emateko aukera ematen zidan, eta gustura aritu nintzen iritzigile moduan.

**IRUTXULO KO HITZAREN lehen egoitza Katalina Eleizegi kalean zegoen, Aieten. Gaur egun, ordea, Ametzagaña kalean dago erredakzioa. Hau da, zure kalean...**

Autorik ez nuen IRUTXULO KO HITZAN lanean hasi nintzenean, eta

gurasoena erabiltzen nuen, tarteka, Aietera igotzeko. Beste batzuetan San Bartolomera joaten nintzen autobusa hartzera, eta, bestela, oinez igotzen nintzen. Ez zen erraza haraino iristea garraio publikoan. Lanerako eta hitzorduetarako aintzat hartu beharreko zerbait zen. Dena dela, garai hartan gurasoen etxean bizi nintzen, Karmengo Ama kalean.

Egoitza aldaketaren berri izan nuenean, batetik, langileengatik poztu nintzen hirian mugitzeko aproposagoa zelako. Bestetik, egoitza aldaketa gure garaian egin izan balitz, askoz hobe [barrez].

**IRUTXULO KO HITZA utzita, hurbiletik**



**Urrats**  
euskaltegia

www.urrats.eus 943-46 55 93 Karlos I.a, 10 - Donostia





Amaia Portugal IRUTXULOKO HITZAREN erredakzioan, 2008an.

### zein distantziatik jarraitu duzu gaur egunera arte?

Bai, noski. Utzi nuenean, bi urte eman nituen kanpoan; Edinburgon (Eskozia) eta Londresen (Ingalaterra). Jarraipena erabatekoa izan ez bazen ere, presente nuen IRUTXULOKO HITZA. Batez ere, erredakzioko kideak ezagutzen nituelako, eta haiekin harremana mantendu nuelako. Garai horretako lankide batzuk dira nire lagun minak. Beraz, utzi eta lehenengo urteetan jarraipen estuagoa nuen. Azken urteotan, ordea, urrutiago nago, eta IRUTXULOKO HITZAREN jarraipena webgunearen bidez egiten dut.

**Izan ere, Bruselan bizi zara. Donos-**

### tiaren berri izateko IRUTXULOKO HITZAREN webgunera sartzen zara?

Esan moduan, bai. Egia da hedabide askoren webguneetan sartzen naitzela egunero, baina horietako bat da IRUTXULOKO HITZARENA. Gaien arabera, egia da ere jarraipen zehatzagoa egin izan diodala. Adibidez, Kaleko Afari Solidarioen afera gertatutik jarraitu nuen IRUTXULOKO HITZARI esker. Gainera, protestak nire auzoan gertatu zirenez, interes gehiago nuen, eta IRUTXULOKO HITZA zen han zegoen hedabide bakarra. Bideoak zuenak ziren, eta telebistan atera zituztenak ere. Horrelakoetan eta auzoei buruzko albisteak direnean,

IRUTXULOKO HITZAK soilik egin ohi du jarraipena. Gertuagoko informazioa eskaintzen du; txikira jotzeak egiten du IRUTXULOKO HITZA handi.

### **Kanpotik, nola baloratuko zenuke IRUTXULOKO HITZAK azken hogeitau urteotan egindako lana?**

Une horretan, IRUTXULOKO HITZAK ia itxita zegoen ate bat zabaldu zuen. Irutxulo aldizkariak asko egiten zuen zentzu horretan, baina tokian tokiko



**«Donostiako euskaldunei tokian tokiko informazioa eskaintzea oso garrantzitsua da»**

gaurkotasunari garrantzia euskaraz ez zion beste inork ematen. Ate hori zabaldu zen, eta, gerora, IRUTXULOKO HITZAK gorabehera asko izan zituen. Egunkari izatetik astekari izatera pasatu zen, eta webgunea garrantzitsuagoa bihurtu zen gaurkotasunaren berri emateko. Formatuak aldatu dira, eta batzuk izango dira beste batzuk baino erakargarriagoak, baina bide hori zabaldu zen duela hogeitau urte, oraindik zabalik dago, eta bidea bera ere normalizatu egin da. Donostiako euskaldunei tokian tokiko informazioa eskaintzea oso garrantzitsua da, eta bide hori IRUTXULOKO HITZAK zabaldu eta jorratu du bere forma-

Zorionak!!  
IRUTXULOKO  
HITZA  
TAMAYO  
DONOSTIA 1914  
110 urte | www.papeleriatamayo.com | Legazpi kalea 4

Tel.: 943-27 97 96  
Bazkariak  
KATA  
egia



Amaia Portugal EITB irratiaren Europako Batasunaren eta NATOren berriemailea da, Bruselan.

tu guztietan. Halere, iruditzen zait batzuek ez diotela behar besteko aitortza egiten.

**'Mundu osoa da tokikoa' da 20. urteurreneko leloa. Ados zaude?**

Oso egokia iruditzen zait. Pertsona batek esaten duenean munduko herritarra dela, hori gezurra da. Mundu guztia da nonbaitekoa, eta batetik bestera ibili arren, mundu guztiari interesatzen zaio gehiago bere jatorria. Beste lelo batekin ere bat egiten du: *Txapela buruan eta ibili munduan.*

**Tokiko informazioak zer nolako garrantzia du zure ustez?**

Beste edozein informaziok bezain-

beste edo gehiago. Batzuetan gutxietsi egiten da, baina gure egunerokoan inpaktu gehien duten albisteak bizi garen tokian gertaturikoak dira. Guk gauzak aldatzeko ahalmena ere, izatekotan, hemen dugu. Izan ere, txikitik hasi behar da gauzak aldatzen eta eragiten. Horren eredu dira auzo elkarteak eta auzoetako komunitateak. Ondo informatuta egon behar duzu txikitik gauzak aldatzeko.

**IRUTXULOKO HITZAK betetzen du tokiko informazioaren funtzio hori?**

Horretarako sortu zen, eta funtzio hori betetzen jarraitzen du. Auzoetara iristea, auzo elkarteekin eta tokiko

eragileekin harremanetan egotea... hori dena tokian tokiko hedabideek egiten dute, eta IRUTXULOKO HITZAK ere egiten du.

**Gainerakoan, IRUTXULOKO HITZAK zer nolako ekarpena egiten dio Donostiaren eguneroko kontakizunari?**

Norbanakoak informatuta egon behar du zerbait eraldatzeko. Ekarpenean hori egiten dio hiriari, eta baita herritarrei ere. Ez zait hitza gustatzen, baina donostiarrak ahaldundu egiten ditu. IRUTXULOKO HITZA irakurtzeak esan nahi du informatu egiten zarela egunerokoan zurean gertatzen ari denaz, eta horrek herritar kritikoagoak eraikitzen laguntzen du. ●



**ATE IREKIAK**

**18:00etan**

Administrazioa **Apirilak 01**

Merkataritza **Apirilak 02**

Turismoa **Apirilak 02**

Informatika **Apirilak 03**



[www.zubirimanteo.com](http://www.zubirimanteo.com)

JM Barandiaran 10-12 Tel.943 89 92 92 20013 Donostia San Sebastián

# ZORIONAK IRUTXULO KO HITZA

20 urte Donostiako informazioa  
bertatik eta euskaraz zabaltzen





**Geuria**  
M E R K A T U A

IZOZKIAK  
KALITATEZKO  
EUSKAL ELIKAGAIK  
GEURIA SUKALDEA



*erosi euskaraz!*

Boulevard 4, DONOSTIA (Sarriegi plazatik ere sarrera du) T. 943 062 694



## Iragarleen Hitza

Saltokiek eta merkatariak ondo dakite zer den egunerokoa bizirik irautea, etengabe aldatzen ari den hirian sustraiak tinko mantentzea. IRUTXULOKO HITZAK hogeitun urte daramatza Donostiako kaleetako bizitzaren taupada jasotzen, eta, bide horretan, negozio askok eman diote bultzada proiektuari. Haiekin batera ospatu nahi dugu urteurren hau: bost iragarleren hitzak bildu ditugu, euskarazko tokiko kazetaritzari eta euren jardunari buruzko hausnarketak partekatzeko.

↪ Garazi Etxaniz Idarreta

# 1

Noiztik babesten duzue IRUTXULOKO HITZA? Zergatik?

# 2

Zein ekarpen egiten du, zuen ustetan, hedabideak? Garrantzia du tokiko kazetaritzak herrian?

# 3

Zein mezu helarazi nahi diezue irakurleei?



«Aldizkariaren iraupena bermatu beharra dago»

**OIHANE ORONOZ  
ELZAURDI**

Enbatako merkataria

1. Ez dut oroitzen zehazki noiztik, baina hasieratik ez bada, urte asko pasatu dira jada harpidetza-  
ra batu ginenetik. Garrantzitsua iruditzen zaigu tokian tokiko informazio iturriak bultzatzea, are, ezinbestekoa, iturri horiek euskaraz direnean. Aldizkariak eskaintzen digun edukiaz gain, haren iraupena bermatu beharra dago, eta horregatik erabaki genuen iragarle egitea.
2. Egunkari eta aldizkari handiago edo zabalagoek jasotzen ez dituzten berriak dakartzkigu. Gure kulturaren ikuspegia eskura jarri eta sakontzeko aukera ematen du, gertutik. Euskaraz eginiko gertuko kazetaritza da.

Tokiko kazetaritza oso garrantzitsua da, herri ikuspegi osoa eskaintzeaz gain, auzo bakoitzaren errealitatea ezagutzeko balio duelako. Izan ere, auzo bakoitzak bere ezaugarri propioak ditu, eta horrelako aldizkariaren bitartez aukera daukagu auzoen ezaugarriak ezagutzeko. Aldi berean, herritarren jardueren, ekimenen, salaketen zein kezken berri eman eta jasotzeko gertuko iturri bilakatu da.

3. Irakurleei esango nieke jarraitzeko aldizkaria irakurtzen, zabaltzen eta babesten. Gero eta irakurle eta harpidedun gehiago izan, aldizkari sendoagoa izateko aukera bermatzen dela. Horrela, urteurren gehiago ospatzeko aukera izango dugu! •



«Errealitatea euskaraz jasotzeko modu ezin hobea da»

**LAIA ABOKATUAK  
KOLEKTIBOKO KIDEAK**

1. Uste dugu ezinbestekoa dela euskaraz eta euskaratik egiten diren ekimenak babestea. Gure kasuan, erronka handia da justizia euskaraz egin dadin lortzea, eta horretarako abokatu euskaldunak izatea ezinbestekoa da; IRUTXULOKO HITZAREN modukoek gure egunerokoa euskaldunagoa egiten laguntzen digute, abokatu euskaldun izateko funtsezkoak dira, beraz.
2. Donostiako egunerokoari erreparatzen dio, auzoetako informazio eta berriak eskaintzeaz gain, bestelako erreportajeak ere lantzen dituelako. Erakusten digu posible dela eguneroko elkarrizketa sozialak zein politikoak euskaraz egitea. Horri gehitu behar zaio gai sozial eta politikoekiko oso jarrera egokia duela aldizkariak, eztabaidarako irizpide egokiak eskainiz.

Bestalde, IRUTXULOKO HITZAK bertatik bertara kontaktzen du kontatu beharrekoa: hiriko kolektibo eta eragileen deialdiak, auzoetako mugimenduak, jaiak, hirian puri-purian dauden eztabaidak eta gaiak... Tokiko kazetaritzarengatik ez balitz, zaila izango litzateke horiek guztiak modu egokian lantzea.

3. Jarrai dezatela IRUTXULOKO HITZA irakurtzen eta anima ditzatela ingurukoak irakurtzera. Donostiako errealitatea euskaraz jasotzeko modu ezin hobea da. Horrek lagunduko digu eztabaidak euskaraz garatzen, eta jendartearen euskalduntzeari gure alea eskainiko diogu. •






«Tokiko kazetaritzari esker, beste hedabide batzuetan agertzen ez diren albisteak irakur daitezke»

### **BITTOR GOROSABEL ETA JOSE CINTERO**

Jobilanen sortzaileetako bi

1. Duela urte batzuk hasi ginen IRUTXULOKO HITZA babesten. Publizitatea jartzeko beharra ikusi genuen normalean lan egiten dugun eta bezeroak ditugun eremuan, alegia, Donostialdean. Euskaldunak garenez, gure alboan gertatzen diren albisteak irakurtzeko aukera ematen digu hedabideak, beste komunikabide batzuek ez bezala.
2. Euskaldunontzat ezinbestekoa da astekaria izatea, eta are gehiago bertakoa bada. Lehen esan dugun moduan, tokiko kazetaritzari esker, beste aldizkari edo egunkari batzuetan agertzen ez diren albisteak irakur daitezke; esaterako, IRUTXULOKO HITZAN agertzen dira berri horiek.
3. Bada, gure bizitza osoan bezala, euskaldun berri zein euskaldun zaharrei esango genieke gure hizkuntzaren alde egin behar dugula, eta tokiko argitalpenetara jende gehiago erakartzen saiatu behar garela, baita IRUTXULOKO HITZAK argitaratutako albisteak eta bestelako bertako produktuak kontsumitu behar ditugula ere. •




«Gertutasuna lantzen saiatzen den hedabidea dugu IRUTXULOKO HITZA»

### **UNAX SEGES INTXAUSTI**

Zumardi tabernako jabeetako bat

1. Esango nuke IRUTXULOKO HITZA hasi zenetik babesten dugula. Izan ere, argi geneukan lagundu egin behar genuela, ahal genuen neurrian, euskaraz egiten zen proiektua.
2. Batetik, aldizkariak lehen lerroan kokatzen du euskara, eta, bestetik, gertutasuna lantzen saiatzen den aldizkaria dugu IRUTXULOKO HITZA, zeinak bermatzen duen beste inon irakurtzen ez diren albiste lokalak euskaraz soilik irakurri ahal izatea. Bestalde, egia da kontraesanak ere baditugula hasieratik. Gure zentralitatea Herreran kokatzen denez, faltan botatzen dugu inguruan ditugun auzo batzuetako albisteak jasotzea. Gure kasuan, ez gara donostiar sentitzen, eta lankide zein bezero ugari pasaitarrak ditugu. Horregatik, ez gaitu guztiz asetzen, esaterako, Trintxerpeko edota San Pedroko albisterik ez edukitzeak, eta bai, ordea, Antiguakoak edota Amarakoak.
3. Irakurleei esango nieke jarrai dezatela euskaraz irakurtzen, tokiko komunitateak zaintzen, eta ingurukoengana euskararen mundua zabaltzen. Horixe da gure erantzukizuna! •



«Tokiko kazetaritzak garrantzi handia du»

### **JEXUX ROMERO**

Apal Estudioko kidea

1. Pertsonalki, hasieratik eman nion babesa nire herrian, Errenterian. Dendaren kasuan, publizitatea egiten hasi ginenean, pentsatu genuen, 'zeintzuk dira gure balioekin bat datozen hedabideak?', eta konturatu ginen IRUTXULOKO HITZA zela horietako bat. Hain zuzen, gure balioen artean gertutasuna eta egunerokotasuna daude, eta aldizkaria guztiz bat dator horrekin.
2. IRUTXULOKO HITZAK gertu-gertukoak diren berriak eskaintzen ditu; askotan, hedabideen orrialdeak makro-albisteekin betetzen dira, baina, gure errealitatean eragina izaten duten albisteak, oro har, gertuko gauzei buruzkoak izaten dira. Tokiko kazetaritzak garrantzia handia duela esango nuke. Horrelako kazetaritzari esker iristen zaizkigu gertatzen diren berriak. Askotan lanak jan egiten gaitu, eta ez gara konturatzen inguruan gertatzen diren gauzez.
3. Irakurleei esango nieke denon artean osatzen dugula errealitatea, eta errealitate hori gertutik abiatu eta, pixkanaka, zabaltzen joan behar dugula. •

#geroa  
2030



# Zorionak Irutxuloko Hitza!

Arostegi Kalea, 10, 20009 Donostia. 943-31 60 66

## BARNE DISEINUA ALTZARIAK

Ametzagaña 7  
Egia · Donostia  
[www.apal.eus](http://www.apal.eus)  
943 320400  
[info@apal.eus](mailto:info@apal.eus)





# ZURE SEGURTASUNA ESKU HOBERENETAN

Tolosa hiribidea, 119, 20018 Donostia (Gipuzkoa)  
Tel.:943-21 78 00  
[www.area7.eus](http://www.area7.eus) - [seguridad@area7.eus](mailto:seguridad@area7.eus)



# ILAZKI EUSKALTEGIA

Euskara  
ahoa

HABEk diruz lagundua

**HABE**



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

[www.ilazki.eus](http://www.ilazki.eus) · Konstituzio plaza, 5 · 943-42 49 10 · [ilazki@ilazki.eus](mailto:ilazki@ilazki.eus)

## Harpidedunen Hitza

Zer izango litzateke IRUTXULOKO HITZA zuen, harpidedunen, babesik gabe? Hogei urtez bidelagun izan zarete, zuen etxeetan astero-astero txokoa egin diguzue, astekariaren zein webgunearen bitartez, eta Donostiako bizipen, proiektu eta egitasmoak elkarrekin partekatu ditugu. Zuetako batzuen hitzak gure etxean jasotzeko txokoa egin dugu gaurkoan.

Garazi Etxaniz Idarreta

# 1

Aldizkaritik zer duzu gustukoan? Zein ekarpen egiten dizu IRUTXULOKO HITZAK?

# 2

Zergatik erabaki zenuen harpidedun izatea?

# 3

Nola definituko zenuke, hitz gutxitan, IRUTXULOKO HITZA?



«Aldizkari euskalduna, plurala, sozialki konprometitua eta gurea»

**IKER JAUREGI ZARATE**

Egia

**1.** Gehien gustatzen zaiguna Donostian eta Euskal Herrian gertatzen denaren berri izatea da. Gertakarien gaurkotasuna eta freskotasuna. Bestetik, argazkiak oso politak dira, eta, gertukoa denez, ezagunak eta lagunak azaltzen dira. Mugimendu sozialek eta euskalgintzak ere beren lekua dute. Lurraren defentsaz, etxebizitza eskubideaz, immigrazioaz eta feminismoaz ikuspuntu objektiboa ematen digu, euskara hutsean. Makro proiektuen garai honetan, txikitasunetik, elkar ulertzeko, zaintzeko eta antolatzeko egitasmo ederra da.

Hau da paperean irakurtzen dugun komunikabide bakarra. Agenda oso gustukoa dugu, asteburuko planak egiteko ideia onak ematen baitizkigu. Denbora-pasa batzuk ere egin izan ditugu. Jaien jarraipenak eta aldizkari monografikoak ere interesgarriak iruditzen zaizkigu.

**2.** Lehenik, euskal prentsari bultzada ematearren egin ginen harpidedun. Bestetik, gustura irakurtzen dugulako, eta paperean euskarriak izatea ona delako, hala, gure semeek euskarri euskalduna izan dezaketelako digitalaz harago.

Bestalde, Donostian euskaldun asko gara, eta halako komunikabideek elkarren berri izatea ahalbidetzen du, eta hori euskararentzat oso ona da.

**3.** Aldizkari euskalduna, plurala, sozialki konprometitua eta gurea. Bertatik bertara. Aupa zuek! •



«Harpidedun izateak indarra ematen dit»

**JOSEBE AMONDARAIN**

Amara Berri

**1.** Atal guztiak iruditzen zaizkit interesgarriak: erreportajeak, iritziak, auzoei buruzkoak... eta ekarpen handia egiten dit, Donostiako albisteak jasotzen baititut. IRUTXULOKO HITZARI esker, gainerako auzoen berri izaten dut, baita kultur jardueren berri ere. Euskaraz irakurtzeko aukera handirik ez dugunez, oso egokia iruditzen zait, bai euskaldun berrientzat, bai euskaldun zaharrentzat. Donostiako jendea ezagutzeko ere egokia dela deritzot, eta albisteak neutroak dira, eta ez arrazistak...

**2.** Euskalduna izanik, oso garrantzitsuak iruditzen zaizkit euskarazko aldizkariak, liburuak, antzerkiak... horiek aurrera egin dezaten egin nintzen harpidedun. Tristeza da euskaldunok horrenbeste borrokatu behar izatea, goikoak ez baitaude prest. Euskal kulturarako laguntza gehiago bideratu beharko lirarteke, eta udalak ere laguntza gehiago eman beharko litzuzke. Harpidedun izateak indarra ematen dit, badagoelako Donostian ni bezalako jende ugari, euskararen alde egiteko prest. Garbi dago: guk egiten ez badugu, ez du beste inork egingo.

**3.** Euskarazko euskarri egokia. Bertan agertzen diren albisteek begiak zabaltzen dizkizute, jende asko baitago hiriko hainbat pertsona edo egoera zikintzen saiatzen. Batez ere, gure ama hizkuntzari indarra emateko bidea da, eta gure kultura maite dugunok elkartzeko bidea. Beste hainbat urtez jarrai dezala horrelaxe! •



«Urtetik urtera indartu eta hobetu den proiektua da»

## **AINHOA AMUNARRIZ IRAOLA**

Parte Zaharra

**1.** Gaurkotasunezko gaiak eta gertuko albisteak oso modu txukun eta atseginean azaltzen dira aldizkarian, bestela beste inolako komunikabideetan ezagutzera emango ez zirenak. Hemengo egunkarietan, nekez aurkitzen dira gure hiriko gertuko albisteak (gaztelaniazko egunkarian izan ezik), eta IRUTXULOKO HITZAK hutsune hori ongi baino hobeto betetzen du.

Era berean, beti dago gustuko iritzi artikuluren bat, erreportaje interesgarriren bat, edota Donostiako pertsona interesgarriren bat ezagutzeko aukera.

Eta hasieratik harpidedun izateari esker, *Gaztezulo* aldizkaria ezagutzeko aukera izan dut, eta hori ere oso gustuko dut.

**2.** Lehen esan dudan moduan, Donostiako auzoetako eta gertuko albisteak euskaraz topatzeko gabezia sumatzen nuen. Eta, euskaldun gisa, euskaldunak diren produktuak kontsumitzeko hautua egiten dut. Beraz, Donostian, euskarazko aldizkaria atera behar zela jakin nuenean, ez nuen zalantzarik izan.

**3.** Zailtasun askori aurre eginda, euskal aldizkari lokal eta duina da, hogeitaz hutsik egin gabe aurrera ateratzen ari zareten proiektua, eta, dudarik gabe, urtetik urtera indartu eta hobetu dena. Hala jarrai dezazuela! •



«Beste komunikabide batzuek egiten ez duten bezala, isilarazitako pertsoneri eta kolektiboeri ahots ematen die IRUTXULOKO HITZAK»


## **ESPE LOZANO ARTEAGA**

Aiete

**1.** Gustukoen ditudan atalak erreportajeena, *Klik-klak* atala eta argazkiak dira. Aldizkariaren ikuspuntuarekin bat nator: beste komunikabide batzuek egiten ez duten bezala, isilarazitako pertsoneri eta kolektiboeri ahotsa ematen die, interesatzen zaizkidan gaiak jorratzen ditu, eta bat nator ikuspegi sozial eta komunitarioarekin. Ikuspegi irekia, errespetuzkoa eta integratzailea duen hedabidea dela uste dut.

**2.** Bai emozionalki, bai arrazionalki, proiektu honekin konprometitu sentitzen naiz, eta uste dut laguntza oro oso garrantzitsua dela. Beste komunikabide batzuekin alderatuta eta jasotzen dituzten laguntza ekonomikoak kontuan izanda, ingurune apala da, eta guztiok lagundu behar genioke. Kalitatezko eta euskarazko kazetaritza egitean dago gakoa.

**3.** Gure ingurunezko, etxekoa, hurbilekoa, fidagarria eta sozialki konprometitu den hedabidea da IRUTXULOKO HITZA. •



«IRUTXULOKO HITZA auzo eta txoko donostiar guztiak dira»

## **MAIDER HERREROS**

Aiete

**1.** Gustuko dut Donostiarekin etengabe konektatuta mantentzeko modua izatea hedabidea. Horri esker, askotan gure gertuko testuingurutik harago doan informazioa iristen zaigu. Gainera, azken urteotan freskotasuna eta perspektiba berriak lortu direla uste dut, baita gaurkotasuna eta interseksionalitatea irabazi ditugula ere. Gertukoen hausnarketa interesgarriak ere irakurri ditzakegu, eta niretzako oparia izaten da lagun baten hitzekin topo egitea.

**2.** Batetik, hedabide independente batengandik eskuratu nahi nuelako Donostiako eta bere auzoetako informazioa. Bestetik, edukiak euskaraz eskuratu nahi nituelako, aldi berean, niretzat garrantzitsuak diren ikuspegiak oinarritzat hartuta: feminismoa, elkartasuna, auzolana... Halako hedabide batean informazioa bilatzeko beharra sentitzeaz gain, babesteko eta horren parte izateko beharra sentitu nuen.

**3.** Betikoaren zein berriaren, tradizioaren zein gaurkotasunaren, hurbilekoaren zein urrunekoaren, eta hiriaren zein herriaren berri ematen duen tokiko komunikabidea da. Bertakoek, bertako hizkuntzan, eta bertan bizi direnentzat egindako lana da. Horrek berezia den zerbaiten parte sentiarazten zaitu, komunitate baten parte. IRUTXULOKO HITZA Donostia da, baina, batez ere, auzo eta txoko donostiar guztiak dira. •

# Euskara eroso bizitzeko

**aek**  
euskara praktikoa



## DONOSTIA

### ANTIGUAKO AEK

Erregezain, 22

943-21 80 88 · [antigua@aek.eus](mailto:antigua@aek.eus)

### AMARA BERRI AEK

Ordoñez, 7 (ARCCO parean)

943-47 45 92 · [amara@aek.eus](mailto:amara@aek.eus)

### GROSEKO IRRINTZI AEK

Iztueta, 3, behea

943-32 76 11 · [gros@aek.eus](mailto:gros@aek.eus)

# ENBATA



Kale Nagusia, 14 - DONOSTIA / 943424797 - 609314962  
[enbatadenda@gmail.com](mailto:enbatadenda@gmail.com) / [www.enbata.eus](http://www.enbata.eus)

## Zozketak


Asteko zozketen epea: **Otsailaren 25a, asteartea**. Saridunen izenak: **Otsailaren 28a, ostirala**.



Paula Estevezek diseinatutako  
'Mundu osoa da tokikoa'  
kamiseta



Paula Estevezek diseinatutako  
'Mundu osoa da tokikoa'  
poltsa



Irutxuloko Hitzaren  
20. urteurreneko  
2025 agenda



Harpidetu zaitez **Irutxuloko Hitzara**  
eta gozatu abantaila guztietaz!  
[Irutxulo.hitza.eus/hitzakide/izan](http://Irutxulo.hitza.eus/hitzakide/izan)



Zorionak Irutxuloko Hitzari  
bere 20. urteurrenean

**Gure**  
baserrietatik  
zure etxera

**euskaber** Koop. S.  
BASERRIKO ZURE ARRAUTZAK



# 20

*urte*  
*egun*  
*eura*



Iruxuloko Hitzak 20 urte bete ditu aurten,  
eta 200 harpidedun berri lortzeko erronka jarri diogu gure buruari.  
Ospatu gurekin eta lortu zure urtebeteko harpidetza digitala 20 euroan.  
20 egun dituzu, ez galdu aukera.

***Babestu babesten zaituena.***